



ANTONIO ZAVALA

**Nekazariak bai miseriak**

BD-3007

10674

# NEKAZARIAK BAI MISERIAK

AUSPOA LIBURUTEGIA  
(140)


---

**EDITORIAL AUSPOA**

**Plaza Santa María, 2 — Tolosa - Guipúzcoa**  
**Teléfono 67 12 82**

ANTONIO ZAVALA

NEKAZARIAK  
BAI MISERIAK



AUSPOA LIBURUTEGIA  
1979



EUSKALTZAINDIA  
AZKUE BIBLIOTEKA

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)  
Inprimatzaille: Itxaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarautz  
Depósito Legal: S. S. 721/79  
ISBN 84-7158-081-0  
Diciembre - 1979

## ARKIBIDEA

	Págs.
Itzaurrea ... ..	9
Bertso Berriak nekazariak bai miseriak ...	11
Bertso Berriak aitak seme gaiztoari jarriak	23
Bertso Berriyak morroiak etxekoandreaki jarriyak ... ..	31
Bertso Berriyak (Beitxo batekin kasuak).	43
Bertso Berriak etxe txarreko maiztarra- ren bizimoduari jarriak ... ..	51
(1915) Bertso Berriyak (Baserritarran uel- ga dala mediante) ... ..	57
Bertso Berriak ..... 'ek bere asuntoari jarriak ... ..	73
Bertso Berriyak (Baserritarrak diyo ezin dala bizi) ... ..	79
Bertso Berriak Txirritak ijituari aterata- ko soñuan ... ..	87
(1936) Bertso Berriyak ..... etxeari jarriyak ... ..	93
Bertso Berriyak (Oso teatro polita) ... ..	99

	Págs.
(1933) Baserritarrak alkartu ... ..	105
(1956) Baserritarren azken urtiak - Iparragirre ... ..	109
Bertso Berriak Añarbe baserriari Lazaro Iparragirre'k jarriak ... ..	115
Iparragirre'tar Patxik bere jaiotetxe Añarbe'ri jarritako bertsoak ... ..	121
Urpean ito zeran Añarbe, biotzez agurtzen det nik ... ..	127
Baserritarrak gera gu ... ..	133



## ITZAURREA

Liburu ontako bertsoak iru ezaugarri dituzte: nekazaritza era batera edo bestera ukitzea; Bidasoa'z onuzkoak izatea, arunzkoak beste baterako uzten ditugu-ta; eta egille ez-ezaguna.

Ala ere, irugarren ezaugarri oni uko egiten diogu lau sailletan. Aita nor duten badakigu eta esan ere egiten degu-ta.

Nekazaritzari buruz bertso asko da. Ez du orrek zer arriturik. Bertsolaririk geienak baserrian jaioak izanik, norbere seaskaz oroitzea bezela da.

Olakoak ditugu, adibidez, Otaño, Txirrita, Gezaltza, Berridi, Alzo'ko Imaz, Nikolas Lujanbio, Motza, Iturzaeta, Izuela, Alkain, Etchamendy, Mendaro, Elizanburu, Xalbador... Oiek, mundu ontatik joanak. Eta aitatu gaberik ere izango da. Bizien artean, Basarri, Uztapide, Lasarte, Enbeita, Matxain, Olea eta abar. Baita Lazkao-Txiki ere, 1967'eko txapelketan baserri ustuaeren gaia jarri eta *O baserritxo* iru ber-

tso eder aiek kantatu zituanean. Baiñan bertso oiek danak, norbere aitaren liburuan sartu genituan, edo sartzeko asmotan gera.

Baserriko bizimoduak alderdi asko ditu. Mundu bat da noski. Orregatik, alderdi guziak ezin, baiñan nagusienak beintzat azaltzen dira liburu onetan: nekazarien burruka latza, baserriaren jabetza, morroia, maizterra, eskubideak, ganadua, esnea, olloak, bizi-eziña eta abar.

Bizi-eziña, sañl geienetan ageri da. Beren iza-kera gainbeera ikusirik, baserritar bertsolariak ezin atsekabe ori ixilik gorde.

Saillik zaarrena ere, onela asten da: *Nekazariak bai miseriak*. Ortik liburuaren izenburua. Bataio ori dala-ta, ez dedilla iñor zapuztu. Egi-egia dala ezin beintzat ukatu, ainbeste baserri-ren eriotza ikusten ari gera-ta.

Azkenik, azaleko *grabado* edo marrazkia nundik degun. Juan Mañé Flaquer katalan idaz-learen *El Oasis. Viaje al país de los fueros* libu-rutik artua da. Liburu ori iru aletan agertu zan, 1878-1880 urteetan. Oiñean, onela dio = *Carreta de bueyes del Baxtán*.

## BERTSO BERRIAK

(NEKAZARIAK BAI MISERIAK)

Bertso auen agerraldirik zaarrena, guk eza-gutzen ditugunetan beintzat, *Donostiyan: -Juan Oses-en moldizteguiyan* argitaratutako kanta-pa-per bat da.

Paper ori bi tokitan arkitu degu: Loiola'ko Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman eta Bonaparte'ren bilduman. Onek, eskuz idatzita, bi eraskin ditu.

Bata, moldiztegi-izenaren ondoan: 1877. Bertsoak jarri ziran urtea ez bada, ori idatzi zuanak papera noiz eskuetaratu zuan adierazi nainko du.

Bigarren eraskiña, paperaren beeko barrenean: *Estas estrofas llamadas «amairu puntuacuac» están con muchos errores... varios de lenguaje.* Dana ezin irakurri. Utsune ori puntuz idatzi degu.

Erria baiño goragoko mail batean bizi zala usteko zuan, paperari itz oiek erantsi zizkionak.

Eta bertso aueri zer irizten zion ere, garbi ikusten da.

Gure iritzia oso bestelakoa da. Guretzat, bertso auek, tutik aldatu gabe ere, oso onak dira, bai bertso gintzaren aldetik eta bai euskeraren aldetik.

Amairu puntukoak dirala ere, ez dakigu ba ongi esanik dagoan. Amairu lerrokoak dira, ori bai. Baiñan zortzi puntukoak, orain itz oni ematen zaion esan-naiaz beintzat. Zortzi rima, alegia.

Bertso auek, Bilintxen *Juana Bixenta Olabe* saillaren bertso-mota dute. Bertsoak an modu batera eta emen bestera idatzita daudela. Eta bertsolari onek lenengo amar silabetan bi puntu sartzen dituala, eta Bilintzek bat bakarra. Beste aldaketarik ez dute. Kantatu nai dituanik iñor baldin bada, badaki, beraz, zer doñu artu bear duan.

Garai artan, gaur baiño ezagunagoa zan bertso-mota ori. Karlisten gerrateko zenbait bertso-sail, mota orretan jarriak daude. *Urra Papi-to*'ren doñua esaten zioten orduan.

Bertsoen egillea nor dan, ez da iñun ageri; eta somatzeko biderik ere ez degu, guk beintzat, ikusten.

Bertso auek 1877'ekoak baldin badira, urte bete besterik etzan karlisten azken gerratea bukatu rik. Errazioak eskatu eta tokian tokiko gauzak janez mantendu ziran urte aietan soldaduak. Ustu-aldi ederrik artzen zuten etxeak. Baserriak, eta erriak ere berdin, lur jota gelditu ziran.

Baiñan 1877'ekoak izatea ez da gauza segurua. Gerrarik ez da aitatu ere egiten-eta.

Bertso-paperak, *Bertso Berriak* beste izenbururik ez du. Orain daukan bigarrenko ori, lenengo bertsoaren asiera da. Liburuaren izenburutzat ere orixe artu degu.

1. Nekazariak (1)

bai miseriak,  
nola badaki  
bertsolariak:  
gosea eta  
nekea biak,  
aumentatuak  
trakeskeriak,  
ai zer egiak;  
soñean ere  
arloteriak;  
onela gabiltz  
tonto aundiak.

(1) Bertso-paperak: *Nekazaridiak*.

2. Gaztañak bildu,  
onenak saldu,  
alimentuak  
ez gaitzan galdu;  
etxean on dana  
berak kendu,  
nekazariak  
au egiten du,  
txarra jaten du,  
geroko gorde,  
gaizki mantendu,  
denbora ala  
pasatutzen du.

3. Zekor azitzen,  
beiak gizentzen,  
urdaia ere  
guk prebenitzen;  
etxean jan bage  
danak saltzen,  
bestela gerade  
gu mantentzen;  
nago arritzen,  
engañoa  
zait iduritzen;  
beste miñ bage  
legoke illtzen.

4. Baserritarrak  
saldu sagarrak,  
kalean edan  
mustu ederrak;  
etxeratu guk  
upel ondarrak,  
aumentatzeko  
tonto-indarrak,  
eragiñ parrak,  
urez beteta  
eztira txarrak,  
gaztetutzeko  
aitona zarrak.

5. Sagar gaziak,  
aundi arkiak,  
eta arkume  
guri aziak,  
onak diranak  
saldu guziak,  
familirako  
txarrak utziak;  
kristau biziak  
galdutzen gaitu  
inozentziak,  
bestela gaude  
buru-jauziak.

6. Baserrikoak  
azitakoak  
ollo ta kapoi  
jan kalekoak;  
orobat ollanda,  
ollaskoak,  
esnea eta  
arrautza preskoak;  
ta guk tontoak  
sardiñak pillan (2)  
egondakoak;  
Zaragoza'ra (3)  
onelakoak.

7. Naiko okela  
jaten dutela  
nekatu bage  
batzuek ala;  
kafea artu  
eta mistela,  
ronarekin  
orobat pastela;  
ta gu bestela:  
taloarekiñ  
sardiñ ustela;  
nekatzen dana  
dabill onela.

(2) Bertso-paperak: *sardiñan pillan*.

(3) Gaur Santa Ageda'ra bezela, garai artan Zaragoza'ra eramaten ziran eroak.



8. Otz beroetan  
kanpo-lanetan  
penatzen gera  
mundu onetan;  
jan bage ezpañak  
bai dietan,  
egun guziak  
bijilietan,  
baserrietan;  
beste batzuek  
asealdietan (4),  
gobernu txarra  
familietan.

9. Gauzen salera  
beti kalera,  
andikan dator  
gure galera;  
ona eraman,  
txarra etxera,  
gauza eskasa  
guk sabelera,  
eroak gera,  
jenero fiñak  
beste aldera,  
nekazariak  
zer ibillera!

(4) Bertso-paperak: *asialdietan*

10. Trabajatzeak  
ditu trantzeak,  
ezin igaroz  
egun luzeak;  
bustia eta  
anbat goseak,  
zarpa-zuloti  
oztu aizeak,  
ai zer klaseak;  
askotan gaude  
oiek paseak,  
urrikarriak  
onlakoxeak.
11. Artoa janda,  
mendiru juanda,  
busti otzean  
naikoa lan da;  
egurra kalera  
eramanda,  
etxean palta  
eta demanda  
askotan oi da;  
errierteroa  
atsoa bada,  
gizon gaixoa  
umilduko da.

12. Abundantziak  
ta eskasiak  
orra nun dauden  
erakutsiak;  
bizitutzeko  
komentziak  
aundiak dauzka  
diferentziak;  
oiek guziak  
erakusten ditu  
esperientziak,  
klaritzen ditut  
nik iritziak.

13. Pobre alperra  
degu okerra;  
obraz eskasa,  
itzez ederra;  
langilleari  
burla ta parra,  
au da leneko  
kostunbre zarra,  
oitura txarra;  
aurrez daukagu  
egiñ bearra,  
bestela sarri  
dator negarra.

14. Lurrean lana  
egiten dana  
jendearentzat  
au degu ona;  
andikan dator  
guziongana  
alimentua  
eta zer jana,  
komeni dana;  
da jarri bear  
litzakeana  
nekazaria  
ondratuena.

15. Danik aulenak  
ta abillenak  
baserrietan  
badaude danak;  
gobernatutzen  
ari diranak,  
besteak nai ta  
eziñ duenak,  
zurraz geienak;  
al ditudanak  
orra esanak,  
utsegiñ badet  
barkatu, jaunak.

Beste argitaraldi bat, *Eibar-Imprenta de P. Orúe* moldiztegin egin zan. Au ere bi tokitan arkitu degu: Paris'ko *Bibliothèque Nationale*'n eta Oxford'eko *Bodleian Library*'n. Paris'koak, eskuz idatzita, oar au du: *Pris à Durango, 1891.*

Aldaketak: Izenburua: Bertso Berriak nekazariak jarriak. Bertsoen ordena: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 11, 8, 7, 10, 9, 12, 13, 14 eta 15'garrena. Ta itzetan: 1/3: nola badakit; 1/7: eman bearrak; 1/8: berriz aundiak; 1/10: segitzen digu; 1/13: errukarriak; 3/5: etxian onak; 3/6: diranak saltzen; 3/7: bestela gera; 3/8: gu mantenitzen; 3/10: engañoa; 3/12: beste min gabe; 4/8: pronto indarrak; 5/2: andi aurkiak; 5/13: buruz jauziak; 6/6: ollo askoak; 6/8: arrautz freskoak; 7/2: jaten dotela; 7/12: nekatzen dala; 7/13: oi da orrela; 8/5: jan gabe ezpañak; 8/6: beti dietan; 8/7: egun guzian; 8/12: egiten ditugu; 8/13: noizik benetan; 9/8: guk zabaltzera; 9/9; eroa gera; 9/10: jenero fiña; 10/3: zeñi igaro; 10/6: ainbat gosiak; 10/8: estu aiziak; 10/12: errukarriak; 10/13: alakoxiak; 12/1: Andi guziak; 12/3: orra nik emen; 12/10: erakusten digu; 13/3: obrak esakasa; 13/7: au da lenago; 14/2: egiten duana; 14/4: au da onena; 14/6: guziangana; 14/10: ta jarri bear; 15/7: bestea naita; 15/9: da ezpañak; 15/12: itz egin badet.

\* \* \*

Tolosa'ko Manuel Urreta zanaren paperetan, sail ontako sei bertso eskuz idatzita agertu dira: 1, 7, 6, 5, 4 eta 13'garrena, orden ortantxe.

Aldaketak: 1/5: nekia eta; 1/6: gosia biyak; 1/7: aumentatuaz; 1/12: onela gabiltza; 4/7: aumentu gero; 4/8: pronto indarrak; 5/2: aundi aurkiyak; 5/7: etxeratu guk; 5/8: txarrak aurkiyak; 6/9: ta gu tontuak; 6/10: sardiña pillan; 7/3: nekatu gabe; 7/13: dabil orrela.

Ta bukaeran, firma-edo bezela, izen-abizen auek: *Hilarion Intxausti*. Bertso-jartzallea ez; kopiatzallea izango da.

## BERTSO BERRIAK

### AITAK SEME GAIZTOARI JARRIAK

Amasei bertso auk iru tokitan arkitu ditugu: Paris'ko *Bibliothèque Nationale*'n, Oxford'ko *Bodleyan Library*'n eta Errenteri'ko Enrike Elizetxea'ren bilduman.

Iru bertso-paper dira, irurak *Eibar - Imprenta de Pedro Orúe* moldiztegitik atereak. Lenengo biak argitaraldi bera; baiñan irugarrena ez.

Gutxienez bi argitaraldi, beraz, sail onek; baiñan batetik bestera aldaketarik gabe, moldiztegiaren utsegite bat edo beste izan ezik.

Paris'ko paperak, eskuz erantsita, itz aukeratu: *Pris à Durango 1891*. Alegia, Durango'n 1891 urtean eskuratua.

Amaseigarren bertsoan, utsik arkituko ditu irakurleak bi lerro. Bertsoak jarri edo jarri-arazi zituaren izen-abizenak eta beraren erri eta etxearen izenak zeuden or. Badaezpada ere, ondorengorik bizi baititeke, kendu egin ditugu.

Bertso auker kontatzen diguten gertaera, zorritzarekin Euskalerriko baserrietan bein baino gehiago ikusi izan da: aitak etxeko eskubideak semearekin utzi, eta onerak ura etxetik bialdu. Ortik izenburua; paperak ere alaxe du.

1. Kaso polipat esplikatzeke  
izandu dira biriak,  
zer estadutan arkitzen geran  
asko guraso pobriak;  
denbora gabe utzi nituan  
etxeko eskubidiak,  
kanpora atera eta atiak  
neri itxi dizkit semiak,  
orra zer paradero geroko daukan  
leno akordatu gabiak.
  
2. Amar urte da nere emaztia  
juan zala mundutik,  
paradero triste onetan  
atera naute etxetik;  
illoba txikiak ujuka zeuden  
ez juateko atzetik,  
semia berriz gora juanda  
maldeziyoka leiotik,  
ezkutatzeko esaten ziran  
aren begien bistatik.

3. Ia, gurasuak, jarri zaitezte  
nerekin erreparuan:  
penak sufritzen nola nabillen  
tristeza onetan munduan;  
seme gaiztoa tratatuko det  
tokatzen zaion moduan,  
etxeko aginteak berak artzeko  
kontratua egin genduan,  
deskuido ori etzat aztuko,  
beti izango det goguan.
  
4. Nere semiak mozkortutzian  
beti jotzen du arronka,  
zer esaten duan ez dakiala  
lagunai desapioka;  
txutik ezin egon, egiten ditu  
gutxienaz amar burruka,  
ontzaren gisa gabian marruaz  
etxera dijoa oioka,  
andre gaixoak lanikan asko  
bizi izaten badauka.
  
5. Kontrarioak puskatu dio  
soñian zeukan atorra,  
eta gañera galduak ditu  
txapela eta txamarra;  
etxera joanda andria jotzen du,  
ez da buruzbide ederra,  
auzuetatik aditzen zuten  
ume gaixuen negarra,  
modu orretan txit sarri dabil  
nere seme buru gogorra.



6. Astelenian eguardi aldera  
 oitikan atera,  
 tabernara dijoa sumatzen badu  
 gauza onikan jatera;  
 pipa bezela bazkaltzen bete,  
 andikan gero kafera,  
 allegatzian desafioka  
 musian edo tutura,  
 diruak galduta asteartean  
 egunsentian etxera.
7. Iru egunak jakiñak dauzka  
 jan eta eran jokatzen,  
 modu orretan segitutzen du  
 aitak egiñak ondatzen;  
 galdua pena, barrendik triste  
 eta gero desesperatzen,  
 andria eta ume gaixoak  
 makillazoka puskatzen,  
 auzo-gizonak asiak dauzka  
 lanbide orrekin kejatzen.
8. Eskubideak artu ta laster  
 erori bizio txarretan,  
 illaren moduan oian dago  
 asteazken ostegunetan;  
 kriatura bat gaiztuagorik  
 ez dago mundu onetan,  
 familiarik ezin mantendu  
 gizonak modu onetan,  
 nere semia nonbratu dute  
 mozkor guzien kapitan.

9. Gauza onik ez du egingo  
 onezkero seme gaiztuak,  
 orrelakuak egoten dira  
 eranarekin nastuak;  
 sabela ongi bete ezker  
 etxeko kontuak aztuak,  
 ostalariak enbargatu dizko  
 labore eta lastuak,  
 familiako gizon batentzat  
 ordena desonestuak.
10. Berri onikan ez du banatzen  
 jokalaria ta alperrak,  
 ta mantxa oriek berekin ditu  
 jeneralian mozkorrek;  
 andre gaixoak arrazoiarekin  
 egiten ditu negarrak,  
 labore guziak azpian dauzka  
 zikiñak eta belarrak,  
 derrepentian ondatu ditu  
 etxeko ontasun apurrak.
11. Betroi txiki bat bakarra etxian,  
 ezta famatzeko klasia,  
 bizi dan arte saltzen ezpadu  
 berakin dauka gosia (1);  
 pensua auzuan, berdura gutxi,  
 falta zerekin asia,  
 ejitanoak moztu diote,  
 illia zeukan luzia,  
 atzetik botatzen du esniaren partez  
 puskarrak eta aizia.

(1) Bertso-paperak: *berakin gosia*.

12. Gauza guziak ondatu ditu  
jan eta eran jokuan,  
denbora asko igaro gabe,  
urte gutxien buruan;  
ta familia gosiak iltzen  
etxian eta kanpuan,  
ume gaixoak modu txarrian  
ikusten dira auzuan,  
arto-xerra bat eskatzen dute  
negarrez ate onduan.
13. Nere semiak sumatutzen du  
tabernarako bidia,  
mozkortutzian erari eske  
gero emateko ordia;  
lagun artian ejenplo txarra,  
mingaña ere berdía,  
ardo-basora erortzen zaio  
ezpañetatik lerdia,  
ikusiko ezpalitz begien bistan  
obe orrelako urdia.
14. Itz ederrakin engañatuta  
eragin ziran kontratua,  
bizi naizen arte etzat juango  
gerozko sentimentua;  
justiziatik libratzen dala  
semiak pensamentua,  
biar bezela ez du amatu  
laugarren mandamentua,  
eriotzako orduan artuko dio  
Jaunak guzien kontua.

15. Zazpi kriatura kostata aziak  
baditut mundu onetan,  
semia baño obeto saiatuaz  
nere etxeko lanetan;  
aita ta ama nik onratua  
ez det penarik ezertan,  
obligazio ori ez da pentsatzen  
biar bezela gaztetan,  
alegiñak ondo eginda ere  
umiak daude zorretan.

16. Izen-apeliduak neriak dira  
.....,  
ta etxiai deitzen diote  
.....;  
pena oiekin galduak dauzkat  
osasuna ta gorputza,  
auzo batian artua nago  
soldata bage morrontza,  
ez da alderdi txarra alegratzeko  
gizon zarraren biotza.

BERTSO BERRIYAK  
MORROIAK ETXEKOANDREARI  
JARRIYAK

Ogei ta zortzi bertso auek, Tolosa'ko Lazaro Pildain adiskideak emandako kanta-paper bate-tik ditugu.

Gaia zer dan, izenburuak esaten du. Bai-ñan urterik eta egillearen izenik ez da iñun ageri, eta somatzeko biderik ere ez.

Paper onek, beeko barrenean, puska falta du. Orregatik, guk daukagun aleak ez badu ere, moldiztegi-izenik edukiko zuan bearbada inprentatik ateratako paper osoak.

Gisa onetako sailletan, izenak kendu egiten ditugu. Gaurko onetan ez ordea. Bertso auek Andoain'goak baitira, bertako adiskide batengana joan giñan.

Adiskide orrek, emen aitatzan diran kristauen berri ikasten alegiña saiatu ondoren, kezkarik ez izateko esan zigun; gaur ez dala iñor

bertso auek argitaratzeak minduko duanik. Adiskide orren esanaz fiaturik, dauden bezelaxe agertzen ditugu bertsoak, izenik kendu gabe alegia.

1. Azaldutzero nua  
instante batian  
nola gertatzen naizen  
Andoain aldian;  
pentsatzen nubelarik  
nabil biarrian,  
bertso bi jarri ditut  
era neukanian,  
Maria Txintxurreta,  
zure izenian.

2. Neronek orrelako  
asmorik ez nuban,  
beste laguntxo batek  
berotu ninduban;  
nola ibiliazi  
nazun juzgaduban,  
jendia ari dala  
murmuraziyuan,  
ia zer oker gaizto  
egiñ ote nuban.

3. Basarri polita da  
mundubaren lege,  
ama ta alaba biyak  
alargunak daude;  
neskak eta mutillak  
badira geigo ere,  
famili orretan ni  
egon naiz mirabe,  
deklaratuko ditut  
gezurrikan gabe.
  
4. Zure bitarteko zan  
Txitxarrain'go Jose,  
ni ark aplikatuba  
etxe ortaraxe;  
bera arrankatu izan  
bazendu uraxe,  
ardo ta ogiz ere bai  
segitu dezente,  
zenbat biaje etxera  
eragiñak zaute.
  
5. Deklaratzera nua  
nere pekatua,  
jendiak euki beza  
asistimentuba;  
egun batez kanpora  
nitzan biartuba,  
seme Joxeri utzi  
nion enkarguba,  
ama kanpua nola  
baizan gertatuba.

6. Abitu nitzan nere  
direzuyari,  
bidian egokitu  
giñaden zu ta ni;  
zer desio neraman  
esan nizun garbi,  
orduban etzirazun  
dudarikan jarri,  
emakume piñaren  
siñalia da ori.
  
7. Pretestu onekin nau  
juzgadura deitu,  
iñozementian  
nitzan allegatu;  
ia zeren motiboz  
ninduban an sartu,  
erantzun zeidala zer  
egin nun pekatu,  
egun ortako palta  
ziran deklaratu.
  
8. Or ezta deliturik  
neretzat batere,  
gure soldata egin zan  
petxa ori gabe;  
iñoiz eginkizunak  
izaten nik ere,  
zu ta ni aspaldiko  
landariak gaude,  
beragatik jartze'izut  
Maria Maldade.



9. Uste zenduban Migel  
abandonatzia,  
eta zure idiak  
disimulatzia;  
au da bere buruba  
engañatutzia,  
garbi agertutzen da  
mantxarik gabia,  
zu zera orrelako  
endreadoria.
10. Amak esana zeukan  
aldamenetikan,  
anparuan beartsu  
daude oraindikan:  
«Onera ez dator baña  
proporziyorikan,  
solterua biagu  
geren ondotikan,  
ez degu orrelako  
morroi biarrikan.»
11. On da idiatzia  
premiyan danari,  
bañan okasiyorik  
ez jarri besteri;  
au grazitan artutzen  
ziniyon amari,  
orra nik adierazi  
ez dakiyenari,  
gure eskandalua  
nolaz dan etorri.

12. Nik ez diyot sartutzen  
iñori maula,  
baziñikizun fami-  
likua nitzala.  
Zertan artu ninduzun  
komeni etzala?  
Or dago siñalia  
gaizki zabiltzala,  
propina kendu nizun  
pena zendubala.
13. Neri etzat gustatzen  
iñor ondatzia,  
orrela dabilena  
nai det ordaintzia;  
basta da juzgaduba  
zelebratutzia,  
ezin izan gentzake  
biyok onoria,  
eratxi biar gera  
bat edo bestia.
14. Bialtzeko zeunden  
promesa egiñikan,  
komeni etzalako  
familikorikan.  
Ez al zan beste modu  
egokigorikan?  
Bajezik aundiyena  
eman biarrikan,  
ortaraño altrastetu  
ez naiz oraindikan.

15. Lanian portatutzen  
nitzan alegiña,  
orixen da neretzat  
zendukan urriña;  
gure artekuak dira  
biarra ta eziña,  
oiek ezagututa  
nago ni auntziña,  
ederragua zeunden  
juan ez baziña.
16. Zedorrek sano nai ta  
besterikan eri,  
ongi derizkiyozu  
ibillera ori;  
zer emakume zeran  
prueban agiri,  
gauza ori bururatzen  
etzaio onari,  
begiraiozu atal  
buruko kanari.
17. Oraindik ez naiz juañ  
iñondik itzuli,  
asuntu ori ez det nai  
orretan itzali;  
pena det biaje au  
eragiña neri,  
zer defekto billatu  
diyozu Migeli,  
edukatu gabeko  
buru ariñ ori?

18. Beraz artu idian  
zere estaduba,  
badakit ez dana au  
gaizki pensatuba;  
iritxi dezazula  
alako orduba,  
urte batzuz bada're  
deskuidatuba,  
zugana biltzen danak  
ai zer ezatuba!

19. Denbora luzatziak  
kalte du loriak,  
ortatik sar litezke  
enfermedadiak;  
oraindikan badira  
atakadoriak,  
besteri eman nairik  
zeuden naigabiak,  
zuk ere pasa itzatzu  
zere azkuriak.

20. Pasadizo guztiyak  
jarriko banitu,  
paper onetan ezin  
litezke kabitu;  
sukaldian fumatzen  
ziran debekatu,  
ezkaratzera jua da,  
naiz otzak funditu,  
nere biziyo pixk'au  
oi nuben kunplitu.

21. Besteri erantzunaz  
beren aitzekiyak,  
lenagotik onela  
daude ikasiyak;  
konsulta eiten dute  
amak eta biyak,  
bearrian presarik  
ez duten Mariyak,  
bapo berotze'ituzte  
eseri-alkiyak.
22. Estuasun gaiztorik  
etzendun orduban,  
ikasi ibillitzen  
personen moduban;  
nik ez nekiyen beintzat  
zertara nijuan,  
gizona aturditzen da  
alako lekuban,  
anparatzen ninduzun  
utsegiñ banuban.
23. Enkargu au aditu  
biazu, Maria,  
oker zabilta baño  
zuzendu zaitia;  
negatik libre dezu  
noranai bidia,  
etxian dadukazu  
konsejadoria,  
zuk ainbat kulpa edo geigo  
dubana bestia.

24. Ni ikusita artzen  
omen du ikara,  
geroztik noski dabill  
oso delikada;  
ez al zendun Migelen  
konturik atera?  
Ez geiago ibilli  
gezurrez aurrera,  
juana damututa  
etorriya zera.
25. Ez ibilli lasterka  
zu nere bildurrak,  
astintzen dituzula  
bideko zakarrak;  
aziyo txarra eiten du  
persona baldarrak,  
ni ikaratutzen nau  
animako zorrak,  
onla deklaritzen du  
Migel Mari zarrak.
26. Ez bajeza geiegi  
eman gizonari,  
iñoiz erra txarrian  
ez naizen erori;  
oraindaño orla izan da  
beti Migel Mari,  
nik barkatutzen diyot  
mundu guztiyari,  
graziyak diyozkat ni  
ein niñun amari.

27. Nere ondrraren billa  
zuzen birietan,  
komeni zaidalako  
nabillen lekuetan;  
gure gisa izaten  
zera bezperetan,  
ia gezurrik jarri  
dedan paper ontan,  
irakurri ditzatzun  
jai-bazkalondotan.
28. Ogei ta zortzi bertsokin  
au da errematia,  
orain beste modu bat  
artzen det idia.  
Preziso al da beti  
morroi ibiltzia?  
Badakit egin gabe  
ez dala jatia,  
ni kontentu naiz beintzat,  
or konpon zaitia.

## BERTSO BERRIYAK

(BEITXO BATEKIN KASUAK)

Oraingo bertso-papera, *Imprenta y Litografía de V. Iraola* moldiztegian argitaratua, bi tokitan arkitu degu: Oxford'ko *Bodleyan Library*'n eta Usurbil'ko Egiluze-txiki baserrian, Feliziano Aizpurua'ren bitartez.

Urterik ez dute bertsoak esaten. Baiñan Oxford'ko ortan, eskuz idatzita, onela esaten da: *San Sebastián, 1906*. Donostia'n eta urte orretan erosia izango dala esan naiko du.

Egillearen izenik ere ez da ageri. Baiñan Usurbil'ko gertaera da eta erri onetan bertsolaririk asko zan garai artan.

Bigarren izenburua, guk erantsia da, lenengo bertsotik artuta.



1. Usurbill'en gertatu dira  
beitxo batekin kasuak,  
aziyo txarrak ekartzen ditu  
beti kolera gaiztuak;  
Igeldo aldian pasiak dira  
urte ta erdi osuak,  
gero atzenian istimaziyo  
txarrak etzeuzkan gaxuak,  
gure erriko agure bati  
paratzen dizkat bertsuak.
  
2. Ganadu ori urte t'erdiyan  
erukiya det erdira,  
irabaziya ona da bañon  
galdubak dauka perdira;  
gero pentsatu det ematia  
etxe aldeko segira,  
*Erramos* orri eman diyogu  
presiditzeko benira,  
pozikan asko joan zitzaidan,  
etzan orduan kupira.
  
3. *Erramos* ori bere orretan  
neri asi zait suplikan:  
«Ganadu ori eman ezkerro  
artuko nuke pozikan;  
artuak egiñ bear, uztartutzeko  
ez dadukat, ez, gauzikan.»  
«Eraman zazu» nik esan niyon,  
ez beiñtzat beste itzikan,  
orduan oso ona zuben ta  
aurki zan beste otsikan.

4. Ganadu ori ekarri dire  
itz egin gendun bezela,  
naiz pobria izan personak  
fiñdadez egin dezala;  
iruritzen zait igeldoarrak  
ondo serbitu nauela,  
bestia ori etzait gertatu  
oraindik beintzat orrela,  
beia ederki ekarri ziren  
txala ondoren zubela.

5. Beiak ta txala ekarri dizkire  
neri igande-goizian,  
beriala abisatu niyen  
nola etorriyak zian;  
egun orretan jaten emanaz  
erukiya det etxian,  
orduan bertan utzi baligu  
penik ematen etzian,  
ganadu-falta zedukala ta  
pozik eraman zizkian (1).

(1) Bertso-paperak: *ziran*, *etziran* eta *zizkiran* pun-  
turako; eta *ganadu-faltan*.

6. Andik urrengo egun batian  
joan nitzaien kalera,  
beti bezela orduan ere  
lagunen era sarrera;  
esaten asi zat egin dubela  
tratu orrekin galera,  
—zenbat gizonen mobimentua  
egunetikan gabea!—  
orlakuakiñ ez tratatzia  
kasi-kasikan obe da.
7. Ganadu ori garesti dala  
botatzen digu enbita,  
preziyo egiten bera izan ta  
au da arrazoi polita;  
jaun ori nola juzgatuko da  
konsideratzen jarrita?  
Amaika bider modu onian  
eman diyogu gonbita,  
arrantxuen gisa orixen ere  
debalde izan nai du ta.
8. Aiskire txarra ez det izandu  
nere denboran laguntzat,  
inbusteriyan amaika bider  
neregan inguratu zat;  
beste arrazoi bat ere orrena  
biziro txokatutzen zat:  
«Ganadu ori izango zala  
pentsatu banu neretzat,  
zortzi bat duro bajuago zan  
ori gogoratu balitzat.»

9. Ganadu ori eraman zuben  
len esan detan gisetan,  
bata bestia konpondu gendun  
dozen erdi bat itzetan;  
orlakuakin ez tratatzia  
obe genduke askotan,  
konpesiyorik egin ote du  
orrek aurtengo Pazkotan?  
Egin ez da ere igualtsu diyo  
orrela ibiltzekotan.
10. Ganadu orrek aspertu egin du  
bi eguntxoan buruan,  
lenago oso ona zuben ta  
oraiñ ez dakit zer duan;  
orlakorikan pasa danikan  
ez det aditu munduan,  
egun-sentiyen entregatzia  
pentsatutzen du orduan,  
iñork ez ikustiagatik,  
kontrabanduen moduan.
11. Jaun ori ikusi dedanian  
orlako borondatian,  
kolera txarrak artu nau ni're  
orduan nere artian;  
ezer esaten asi ez nitzaion  
orduan auba betian,  
asko moduban asi bagiñan  
dianentzako kaltian,  
neronek joan da ekarri diyot  
illunabartxo batian.

12. Gizona firme ez da portatu  
len esan degun itzian,  
inbusteriya ugari eta  
giza-legia atzian;  
nik lagundu ta izan izan da  
premiyan edo trantzian,  
miñikan eman ez balu oiek  
esango ere etzian,  
aukera danak omen dauzka orain  
andregaiaren etxian.
13. Andregai billa ibilli du orrek  
zatua ardoz betian,  
joan ezkeroz buruz aurrera  
laister sartzen zan atian;  
beste lagun bat ibiltzen zuben  
beti berekin batian,  
ezezkuak ere izan bear zitun  
dozenatxo bi aldian,  
apenas orrek faltatu diyen  
baietz agindu artian.
14. Orren andriak izan biar du  
izugarrizko portuna,  
egunian bi ta iru aldiz  
bisitatzeko taberna;  
galtzak goraño jasoak eta  
noiznai kaliak barrena,  
zartuta orla dabillenan  
gaztetan etzan zuzena,  
andregai billa irurogei ta  
sei bat urteko aitona.

15. Gauza oriyek barriatzia  
pentsatu baitegu kantuz,  
aziyo txarra oiek egiñ ta  
ni ez neguen kontentuz;  
deskarga txiki bat egin gabe  
jarri ezin nitzan deskantsuz (2),  
ni eskarmentatu naiz polliki,  
bestiak ibilli kontuz,  
ederki asko portatu zera,  
eskerrik asko, *Erramus*.

(2) Bertso-paperak: *jarri asi nitzan deskantsuz*.

## BERTSO BERRIAK

### ETXE TXARREKO MAIZTARRAREN BIZIMODUARI JARRIAK

Amairu bertso auek, gaiaren agergarri dan izenburu orrekin, iru tokitan arkitu ditugu:

Lenengo, Donostia'ko Antigua'n, Lexo bertsolariaren alaba Adelina Sarasola'k eman zigun eta moldiztegi-izenik ez duan bertso-paper batean. Au da, dudarik gabe, argitaraldirik zaarrena. Berari kopiatu diogu.

Bigarren, Manuel Lekuona apaiz jaunaren bilduman. Bertso-paper bat da, baiñan onek moldiztegi-izena badu: *Imp. Macazaga - Viteri, 32, Rentería*. Aldaketa txiki batzuk baditu: moldiztegi-utsegite bat edo beste eta: 3/5: errukigarri etxe txarretan; 5/5: kontribuzio ta erreparatuak; 9/2: iñork nai badu erosi; 12/2: moduzko desgraziak.

Eta, irugarren, *Bertsolariya* astekarian, 25'garren zenbakian, 1932'ko Martxuaren 6'an. Onek,

aurrekoak bezela ditu bertso guziak; baiñan 9/2  
ori, Lexoren alabaren paperak bezela.

Damurik, egillearen izenik ez da ageri, eta  
urterik ere ez da esaten.

1. Bertso berriak jartzera nua  
Gipuzkoa'ko partean,  
bost pazientzi sufritu degu  
ontara geran artean;  
publikatzen det zer gertatzen dan  
nekazarien tartean,  
gau eta egun deskantsu gutxi,  
beti gabiltza nekean,  
oiek guztiak utsak dirala  
iru bijili astean.
2. Egiñ da artu urte bat gertu  
denbora bear gariak,  
aize txar batek igoal berriz  
galdutzen ditu erdiak;  
nagusiarentzat guk aurten falta  
osatutzeko neurriak,  
estomagoti lijero gaude,  
sekatu bage ogiak,  
señale ona lepo-ardatzak  
edukitzeko lodiak.



3. Modu onean bizi dirade  
nekazariak batzuak,  
beren-berenak daduzkatenak (1)  
etxe soro ta basuak;  
errukagarri etxe txarretan  
gaurenak maiztar gaixoak,  
nik bezelaxen esango dute  
nola gabiltzan auzoak:  
taloa jaki, erritan beti  
aitonak eta atsuak.

4. Nekazariak askorentzako  
egiñ bearra daduka (2),  
Santo Tomasak arrimatzean  
prestatu bear errenta;  
duda bageko zor bat ori degu,  
ez gerade orren kontra,  
beste gizon bat plaza aldean  
kasi jaiero marruka,  
gure atsua aizkenerako  
sentitutzen det birauka.

(1) Bertso-paperak: *dauzkatena*.

(2) Bertso-paperak: *dauka*.

5. Beti bildurrez egoten nazu  
errira bajatutzeko,  
pensatuzten det mundu guztia  
nigana dala artzeko:  
kontrizio ta errepartuak  
puntual pagatutzeko,  
bestela pronto desafioa  
kartzelan preso sartzeko,  
bera da basta estutu edo  
gizona ernegatzeko.
  
6. Nere bajeza guztiak ditut  
pazientzian eraman,  
Zeruko Aitak ditxa eder au  
Berak ziralako eman;  
txit aberatsa izateko're  
ez naiz enpeñatzen teman,  
gulerietan gastaturikan  
aiñ gutxi arkitzen penan,  
meriendatzen usakumerik  
ez det jan izan tabernan.
  
7. Utsa zan bada izandu banitz  
tunante edo alperra,  
bide onetan pasa ez danak  
lasa egingo du farra;  
potaje gutxi, gatza du koipe,  
aldagarri bat bakarra,  
artoa errotan, garia falta,  
ikullu-alde kaskarra,  
iru urte ta zazpi erralde  
eskas da gure txekorra.

8. Bei tajuzkoa etxeratu det,  
gustagarrizko bitxua,  
jezten ez dago proatutzerik,  
gañerakuan mantxua;  
kana bete bai illea luze  
ez dalarik umetsua,  
sei illabetez ernai uste ta  
gertatu zaigu antzua,  
begi bakartzat artu nuen da  
gañera berriz itxua.
9. Txerri bat ona salduko nuke  
iñork nai balu erosi,  
kotapetako ziriñak janez  
olloak dute nagusi;  
izuagorik mundu onetan  
eziñ liteke ikusi,  
txisare baten modura tripa,  
orren saltoak igasi,  
bi urte t'erdi kunplitu zaio  
ta ezta jartzen irausi.
10. Atzo goizean esaten ziran  
Jose Joakin semeak:  
beti goseak ernegatuta  
jarri zaizkie maniak,  
egun batean berak jan baietz  
oien iruen mamiak;  
illeak metroz negurtu bear,  
motxegi dira kaneak,  
errenta lasa zuzendutzeko  
nik dauzkat animaliak.

11. Etxe txarreko maiztar pobeak  
 miseri asko paseak,  
 bañan munduan izan gitezken  
 piñenetako klaseak;  
 geien-geiena penatzen gaitu  
 lan asko eta goseak,  
 orratz bat bete ez dira gure  
 ijara mear luzeak,  
 millaka eskerrak, laguntzen digu  
 Jaungoikoaren graziak.
12. Nekazariak izaten ditu  
 moduzko desgraraziak:  
 dean sororik onena ere  
 arrastatu dit luziak;  
 erne jaio ta gelditu dira  
 lur, paret eta esiak (3),  
 eta gañera alperrik galdu  
 ziran labore guziak,  
 aurtengo gure errentarekin  
 barau bearko du nausiak.
13. Bizi-modu au publikatzen det  
 esturatu naizenean,  
 personak zerbait egiñ bear du  
 besterikan eziñean;  
 mundu guzian gu gera buru  
 pobrezan eta fiñean,  
 arlotearen paraderoa  
 berau degu aizkenean,  
 ate ondotan aстера nua  
 Jaungoikoaren izenean.

(3) Bertso-paperak: lur parat eta asiak.

(1915)

## BERTSO BERRIYAK

(BASERRITARRAN UELGA DALA MEDIANTE)

1915'eko Abenduaren 10'an, oporketa ez-ezik, agerketa ere egin zuten baserritarrak Donostia'n. Urnieta'ko Alkain'ek ere bertsoak jarri zituan orduan. *Auspoa*'ren 92'an arkituko ditu irakurleak. Baita adierazpen batzuk ere aurretik.

Sail au nork jarria ote da? Ez du paperak esaten. Eta beste iñondik ere ez degu ikasi.

Papera, *Imp. La Económica*'n argitaratua, Errenteria'n, Erdiko-etxe'ko Jose Antonio Berrendo'ren eskutik jaso genduan; baita Donostia'n, Oriamendi'ko Segundo Kalonje'renetik ere.

Azken bertsoak dionez, amabi urteren buruan, gauzak lengo moduan berritu dira. Orduan ere ixkanbillarik izan ote zan? Ez dakigu.

1. Abenduban amarra  
señaladamente,  
milla beatzi eun da  
amabost urte,  
Donostiya'n egun au  
gogongarri dute,  
basarritarran uelga  
dala mediante.  
Amalaura arte  
egon dira fuerte,  
askorentzat kalte,  
zein dago kulpante?  
Ojala motiborik  
ezpaleukate.

2. Amarrera baño len  
patentak artzeko,  
bestela ezertxo're  
ez ekartzeko.  
Ai zer arintasuna  
oñez etortzeko,  
baloria zutenak  
ordena jartzeko.  
Balitz pagatzeko,  
pronto kobratzeko,  
dunari kentzeko;  
zeñek du galtzeko?  
Petardua diruri  
askorentzako.

3. Basarriyan eztago  
ainbeste otz bero,  
egiña baliatzen  
utzi ezkeru;  
errikuak bezela  
zenbait forastero  
ola mantentzen dana  
bada onezkero.  
Ezagutu ezkeru,  
artu erreparo,  
aitortu aguro,  
begiratu gero;  
argitasun oberik  
eztek espero.
4. Porru ta espeziyak (1),  
biar dan berdura,  
benta libre danian  
merke eldu da:  
ostatura bezela  
pobre ingurura,  
oteletara igual  
leku ondradura,  
norbaiti burura  
zitzaion modura.  
Orain berriz dura,  
zertako da mura?  
Nun da lengo aitonen  
lege on ura?

(1) Bertso-paperak: *Porruta tespeziyak*.

5. Egazti ta arrautza,  
aza ta esnia,  
famelirako oso  
txarrak ezta;  
babarrun da patata,  
sagarra bestia,  
jan-gauza klase dana  
dator Donostia.  
Gure ajustia  
merke erostia;  
kanpuan kostia  
nola dan trixtia,  
posible ezta zenbaiti  
erakustia.

6. Saltzen dabillenaren  
ordenamentuba,  
garbitasunerako (2)  
mandamentuba,  
urtian bi pezeta  
txaparen kontuba.  
Ori bakarra ezta  
preziyo altuba;  
beste mandatuba  
gaizki moldatuba,  
nola sobratuba,  
ezin logratuba;  
badago zeñetara  
begiratuba.

(2) Bertso-paperak: *srgabitaue nerako*.



7. Bei esnedun bakoitzak  
—ordena polita—  
aparte ibiltzeko  
bere marmita;  
urrutiyetatikan  
goiz erakarrita,  
galtzeko're bildurtu  
garbi ekarrita.  
Irabazi naita  
kalterako gaita,  
gauza txarra baita  
orlako enbita,  
abuso geiegiya  
ezta ongi-ta.

8. Ur puxka batek eziñ  
esnerikan galdu,  
beste sendogarririk  
ezpaldin balu;  
gradubak ortarako  
litezke utsaldu (3),  
txarrak ixuri eta  
ona dana saldu;  
kulpa dunai eldu  
ta utsikan bialdu,  
gutxi urrikaldu,  
kopeta itzaldu;  
bildurrak maleziya  
kentzen ez al du?

(3) Bertso-paperak: *litezke osaldu*.

9. Lau egunian ziran  
bertan maleziyak,  
ixilik eta klaro  
egiñ-aziyak:  
leku desiértotik  
tajuz erosiyaq,  
plazan manejatuta  
saltzen ikasiyaq;  
esne itxusiyaq  
daude ikusiyaq,  
kolorez nasiyaq,  
naspilla biziyaq;  
turbiatubak ziran  
oiek guziyaq.

10. Zarrari aditzen niyen,  
gazia nitzala,  
orlako naspillarik  
libre etzala.  
Uste det gaur askori  
ondo deritzala,  
naiz deretxoz kargatu  
Castilla'n bezela,  
merkatzia ala  
inposible dala.  
Zenbaiten itzala  
ezta serbitzala.  
Kulpantiak beretzat  
jaso ditzala.

11. Ixteriyak jartzia  
azulejuakin,  
zer aurreratzen degu  
lana orrekin?  
Itxurak egin nai ta  
kontuetan zikin,  
ez jateko on diran  
lau ankakuakin,  
baizik bikuakin  
eta flakuakin,  
oien lujuakin  
edo jokuakin;  
okertzen errezago  
orlakuakin.

12. Zenbait mendi ondotan  
egiten dan lana,  
nolanaita ezin galdu  
litekiana.  
Biziyorik txarrena  
dator guregana:  
bata bestien onik  
ezin eramana.  
Jana ta erana,  
biartzen gerana,  
kanpuak emana,  
neke gabe dana,  
au da aberatsenak  
uste dubana.

13. Ikulluban danian  
zekor bat azitzen,  
gatza bota baño len  
dago gazitzen.  
Probatu gabekuak  
zer daki bizitzen?  
Au etzaio zenbaiti  
adierazitzen.  
Zer da ikusitzen?  
Pentsuba erositzen,  
ezpadu luzitzen  
dago padezitzen;  
sortu biarrak gaitu  
estu-azitzen.

14. Lore ederra franko  
zabaltzen du intzak,  
ori bakarrik eztu  
nekazaritzak;  
landare ona asko  
galtzian ekaitzak,  
alkargana biartzen  
eztira arkaitzak.  
Zeñek bere gaitzak  
fameli bakoitzak;  
urrutiko itzak  
aldian zikoitzak;  
etortzen dira gauza  
penagarritzak.

15. Destierroko balle  
trixtia onetan  
ezin konpondu gera  
geren lanetan,  
trata-birian eta (4)  
artu-emanetan,  
engañiyua franko  
bizi geranetan,  
naiz euskaldunetan  
ta igual denetan;  
ari naiz benetan,  
gaur nago penetan,  
etsaiak daudelako  
aldamenetan.

16. Gizonik jatorrenak  
dira kastigatzen,  
nor bere jeniyuak  
gaitu tiratzen.  
Gaiztuaren muturra  
zalla da jiratzen,  
ikasi biar degu  
zorrotz begiratzen,  
alkar segurutzen;  
ezkera dudatzen  
zaiona pegatzen  
nola dan geratzen;  
denboraz jakingo da,  
kontsideratzen.

(4) Bertso-paperak: *trata burrian eta*.

17. Duenak eske eta  
eztutenak pobre,  
alde guzietatik  
tiraka daude;  
buruz giyatu faltan  
zenbait kantidade  
alperrak mantentzeko  
botatzen dirade.  
Bizitzeko trebe  
zaleturik gaude,  
dakiyena jabe  
egitia obe,  
esklabuak bezela  
ibilli gabe.

18. Osatuko bagina  
jende menoriak,  
arrazoi naturalak  
dira guriak;  
alkarri egindako  
txarkeri legiak,  
oiek dira aziyo  
proetxu gabiak.  
Lagun zar neriak,  
zer dakar fediak?  
Itzak ateriak  
mantendu beriak;  
beti errespetatu  
igualdadiak.

19. Donosti inguruko  
etxe ta erriyak,  
zertarako ditugu  
moda berriyak?  
Paper euskaldunetan  
daude ezarriyak  
kondiziyo batzuek  
txit ondo jarriyak.  
Orain basarriyak,  
daude igarriyak,  
txiki ta larriyak (5),  
erne belarriyak,  
utzi ditzagun bide  
kaltegarriyak.
20. Astigarra ta Altza,  
Oiartzun da Irun,  
ta beste erri asko  
nola dauzkigun;  
Usurbil da Lasarte  
alde genauzkigun,  
Andoain ta Ernani (6),  
oiek bezin bigun.  
Zenbatek nai digun  
gutxi genekigun,  
batek esan zigun  
zer kariño digun,  
gizon onak fabore  
jarri zizkigun.

(5) *Ta* ori bertso-paperak ez du, eta moldiztegiaren utsegiteren bat izango dalakoan, gerok erantsia da, neurria osatzearren.

(6) Berdin, *ta* ori guk erantsia.

21. Berriz amabi urte  
aundiren buruan  
gauzak berritu dira  
lengo moduan.  
Gizon jakintsun oiek  
beren enpleuan,  
kortian itzegiñak  
zer lege dagan;  
gaude esperuan,  
oien anparuan;  
premiya zeguan  
ta eduki goguan,  
bizi gaitezen pake  
obiaguan.

\* \* \*

Erdal egunkariak oporketa onetzaz zer esan zuten ikastearren, Donostia'ko *La Voz de Guipúzcoa* eskatu genduan. Aurreko eta ondoko egunetan ere mintzo da, baserritarrak esnerik ekarri nai ez dutela-ta; baiñan Abenduaren amarraren gertaeraz onela esaten du biaramonean:

#### EL ASUNTO DE LA VENTA DE LA LECHE

*«Como estaba previsto y anunciado, ayer estalló el conflicto provocado por unos cuantos agitadores y embaucadores de los «caseros», a quienes utilizaron moviéndolos desde detrás de las cortinas, para fines políticos o particulares. Que de todo hay.*



*Habían dicho los caciques a los «caseros» y «caseras» tales cosas, falsas en absoluto, que muchos de los primeros se dispusieron a impedir, hasta por la violencia, que las mujeres trajesen al mercado no sólo leche, sino hortalizas y frutas, y muchas «caseras», atemorizadas, dejaron de venir al mercado. Se notó que ocurría casi en la totalidad de los vendedores de Hernani, Astigarraga, Lasarte, Usúrbil y Andoain, o sea donde tienen su mayor influencia los «jaunchos».*

*Vinieron casi en masa, aunque acobardadas y temerosas, las vendedoras del valle de Loyola, Oyarzun, Rentería y Pasajes.*

*Las autoridades habían tomado bien sus precauciones. Fuerzas de la guardia civil, miqueletes, seguridad y vigilancia estaban apostadas en las carreteras en sitios estratégicos, pero aun cuando impidieron muchas coacciones, no pudieron impedir las todas, y en algunos lugares los exaltados pudieron derramar al suelo algunas cantimploras de leche. Pero las vendedoras que llegaron a San Sebastián, se convencieron de que no tenían que temer nada absolutamente, y después de servir a su clientela —que no lo olvidará— se fueron a sus casas con toda tranquilidad.*

*Estas vendedoras fueron las primeras propagandistas en favor de la normalidad, y es de esperar que hoy vengan en mayor número, para lo cual tendrán todas las garantías deseables.*

*El alcalde accidental, señor Navas, aún cuando el conflicto era mayor de lo que se esperaba,*

no se amilanó y le hizo frente resueltamente. De fuera de la provincia hizo traer cuanta leche natural pudo venir y además ordenó al Laboratorio químico municipal preparase leche condensada, llegando a reunir unos cuatro mil litros.

...Hoy, entre nueve y diez de la mañana, se espera la llegada de varios camiones automóviles procedentes de Vizcaya y Navarra, y en los cuales vendrá toda la leche que los comisionados que el señor alcalde envió ayer, hayan podido encontrar.

\* \* \*

Las autoridades han adquirido la certidumbre de que este movimiento ha sido provocado por gentes sin conciencia que no han vacilado en buscar un conflicto de carácter grave para satisfacer bajas pasiones, amparándose en estos pobres «caseros» a los cuales van a perjudicar grandemente.

Valiéndose de engaños; diciéndoles que el Ayuntamiento les cobraría dos pesetas por cantimplora o marmita y les fiscalizaría las cuadras y les rechazaría las vacas caprichosamente, consiguieron ayer que no viniera la mayoría al mercado. Pero no contaron con una segunda parte que para la gente del campo —¡ a los que tratan de proteger!— tiene una importancia enorme. Productores de otras regiones próximas, pero que nunca habían venido con sus productos a San Sebastián, están aprendiendo el camino de nuestro mercado, y, dados los elevados precios a que vendían los habituales proveedores

—*hoy en rebeldía*—, se encuentran con que aun vendiendo más barato obtienen una bonita remuneración, con el consiguiente beneficio para el público.

...La autoridad gubernativa detuvo ayer, acusados de ejercer coacciones, a Domingo Carrillo Gorrochategui, candidato «popular» derrotado en las últimas elecciones municipales por el distrito de Atocha, uno de los rurales; José María Larburu (Trancacho) de Urnieta, y Juan Antonio Echeverría y Sebastián Yarzábal, ambos de Rentería. Estos cuatro detenidos han sido puestos a disposición del Juzgado de instrucción, y de sus detenciones tiene también conocimiento el señor Fiscal de la Audiencia.»

\* \* \*

Lerro oiek irakurritakoan, egia esan, arrituta gelditu giñan. Egunkari ori errepublika-zale izanik eta oporketa au erregeren denboran getaturik, baserritarren alde mintzatuko zala uste genduan. Baiñan batekoz bestera: itz onik ere ez nekazariantzat.

Egunkari orrek sasi-piztutzailletzat dauzkan oietako batzuk, Alkain'en liburuan ere aitatzen genituan. Baiñan *La Voz de Guipúzcoa*'k ez du Alkain'en izenik agertzen, ura ere Donostia'ra eramán baitzuten eta iru egunean itzalean euki.

## BERTSO BERRIAK

### .....'EK (1) BERE ASUNTOARI JARRIAK

Urterik gabeko amasei bertso auek, *Imp.* «*Urdaneta*». - *Villafranca* moldiztegiak atera zituan argitara.

Ormaiztegi'n jaso genituan guk, ango baserriren batetik, bertako Etxaburu'ko Bizente Mujika'k bitartekotza eginda.

Baserri batetik olloak faltatu dira. Baserri-tarrak mutil baten errezelua dute. Pareja bat —guardiazibilletakoa noski, olakorik esaten ez bada ere— mutillarengana dator, besteak salata.

Baiñan ongi ateratzen da, eta ondoren bertso auek jartzen ditu, edo bertsolariren bati jarri-arazten dizkio.

Geren oiturari jarraituz, izen guziak kendu egin ditugu.

(1) Izena eta abizena.

1. Bertso berriak jartzera nua  
neronen asunto bati,  
eta zertati izandu deran  
aierazitzeagaiti;  
kulparik bage zenbait personak  
disgustoa du nunaiti,  
lasatzen naizen saia bear det  
gure Jaungoikoagati.

2. .... det apellidua,  
.....izena,  
..... 'ti ..... arte  
soltero bizi naizena;  
zer pasa zairan orra nik emen  
esplikazio zuzena,  
motibo gabe ondra kentzea  
nork ez du izaten pena?

3. ....'ti ollo batzuek  
egin zirala faltatu,  
sospetxa berriz neregana  
ote nitun arrapatu;  
pareja batek besterik ezda  
ni deklarazioz artu,  
baño ez dute mantxa zikiñik  
nere artean topatu.

4. Lixerreri txar orietatik  
 Jainkuak libra nazala,  
 sospetxa ori egin duenak  
 baute kopetan azala;  
 baldin kulparik izandu banu  
 seguro neukan itzala,  
 goierritarrak, sinistu gero  
 besten bat lapurra zala.
5. Zenbait personak iñorengati  
 miztoa lijero autikan,  
 naiz dala gezur igoal egi  
 itz egin bear betikan;  
 ez dakinari txit komeni da  
 erakustea praktikan,  
 oiengandik doble kreitu badet nik  
 pobre biziagaitikan.
6. Pareja orrek estu artuta  
 eman ziraten trantzea,  
 baño ezagutu ninduen azkar  
 izketan edo antzea;  
 esan ziraten: «Artutzen degu  
 zurekin konfiantzea,  
 iñola ere ollo oriek  
 ostutakoa etzea» (2).

(2) Bertso-paperak: *ostu zacoa etzera*.

7. Pareja orrentzat gorrotorikan  
 nik ez dadukat batere (3),  
 sospetxa iñork eman ezker  
 ortako jarrita dare;  
 persona oiek para nai zuten  
 nere kondukta dotore,  
 projimoarena azkar azaldu  
 berak txarragoa baukea're.
8. Sospetxa zeukan famili orrek  
 kasi du sorgiñen fama,  
 iru laguntxo bizi dirade:  
 aita, semea ta ama;  
 lau arrobati ez da pasako  
 pisu geiena daukena,  
 esposizioa ateratzeko  
 ai zer personaje ona.
9. Arrazoiz-ta nik jarriko ditut  
 iruko orrek mereziak,  
 orain bi urte izan zituzten  
 izugarritzko auziak,  
 etxean zituen igar-eziak  
 gastatu arte guziak;  
 orain eskeleto egiñik daude  
 egarri eta gosiak.

(3) Bertso-paperak: *nic ez daucat batere.*

10. Baldin merezi bazituzten da  
jartzen dizkiet ederrak,  
oek leitzean ..... 'tarrak  
gingo dituzten farrak!  
Matsaill-ezurak bistan dauzkate,  
lepaitzekiak melarrak,  
nezesidadez berak zeuden  
jateko ollo-iztarrak.

11. Beartutzean egiten nien  
al dan guztia launtzea,  
askotan berak gizon-bildur da  
entregatu're etxera;  
aizkenean sospetxa ori  
biraldu dit pagatzera,  
beste batean beartuta're  
ederki portatu zera.

12. Gauza ontara beartutzerik  
asko ez nuan nik uste,  
bertso oekin kantari noa  
gau t'egun jai eta aste,  
Gipuzkoa dana korritu arte  
etxe, plaza ta erbeste;  
zuek mereziak oetxek ziran da  
oraiñ or konpon zaitezte.





## BERTSO BERRIYAK

(BASARRITARRAK DIYO EZIN DALA BIZI)

Bertso auek, gutxienez bi alditan argitaratuak dira, eta biak bertso-paperetan.

Itxuraz beintzat bietan zaarrena dan pape-ra, puskatuta dago; erdia falta. Bertso auek ditu: 1, 2, 6, 7, 11 eta 12'garrena osorik, eta 3, 8 eta 13'garrena erdizka. Moldiztegi-izenik ba ote zuan ezin esan, falta dan puska beeko barrrena baita. Ez genduan idatzi paper ori noren eskutik eldu zitzaigun.

Bigarren bertso-papera, bi tokitan arkitu genduan, eta bietan osorik: Oiartzun'en, Altzi-bar'ko Olalde baserrian, Kaskazuri bertsolariaren illoba Jose Anjel Sarasola Urbieta zanaren eskutik; eta Usurbil'ko Egiluze baserrian, bertako Feliziano Aizpurua'ren bitartez. Paper onek moldiztegi-izenik ez du; eta aldaketarik ere ez, aurreko paper puskatu orrek dauzkan bertsoetan beintzat.

Egillearen izenik ez da ageri, eta ori somatzeko biderik ere ez. Noiztsu jarriak diran esatea ere ez da erreza. Ganadua merkatu omen da, pentsua garestitu, eta baserritarra ezin bizi. Ori da gaia, eta ortik, aspaldi ontan nekazarien egoera orixe baita, ezin ba argibiderik atera.

Baiñan bertso-paper oiek, letraren itxuragatik-eta, ez dute oso zaarrak ematen. Berdin izan ditezke gerra baiño lentxeago edo ondorenean jarriak.

Bigarren izenburu ori, gerok erantsia da, bigarren bertsoetik artuta.

1. Bertso berriak jartzeko  
artu det iria,  
esplikatubaz ondo  
asunto guria;  
gai ona daukat baldin  
banu poderia,  
eskatutzeko degun  
arrazoibiria,  
Diputaziyua edo  
gobernadoria.



2. Basarritarrak diyo  
ezin dala bizi,  
ganaruba zergatik  
dun merkatu-azi;  
arakiñak e ortik  
nai due irabazi,  
azienda eziñ berriz  
kosta gabe azi,  
piska bat laguntzia  
ez al du merezi?
  
3. Pensuba garesti ta  
ganaruba merke,  
basarrikuak badu  
franko desuberte;  
kejatutzen jendia  
asi da fuerte,  
diputaziyora eman  
biar dala parte,  
desorden ori ondo  
arreglatu arte.
  
4. Jende nekazariya  
da kejatu-antxa,  
garbitu biar dala  
desordenan mantxa;  
irabazi ezinda  
esperantza motxa,  
au da basarritarrak  
nai lukian martxa:  
pensuba bajatu edo  
azienda altxa.

5. Basarriyan nekatzen da  
ganaruba azitzen,  
galantziya bestentzat  
du irabazitzen.

Nola ezta kostako  
orrela bizitzen?

Ez bada pensub'ori  
bajatu-azitzen,  
jende nekazariya  
beti padezitzen.

6. Nekazariyak eztauka  
lanerako pozik,  
bestek kendutzen dizka-  
lako irabazik;

aziendak eztauzka  
kosta gabe azik,  
pensuba garesti ta  
merkatu nai ezik,  
orretxek kejavu'itu  
basarritar guzik.

7. Ganarub'au azitzen  
zenbat'an kostia,  
pensubaren preziyua  
asko du ikustia.

Ain da penagarriya  
galtzen ikastia,  
damu izango due  
bajatzen astia,  
bat beziñ altu jarri  
biar da bestia.

8. Merke ematen badu asko  
kosta ta azita,  
berriz e geldituko da  
gutxi irabazita;  
almazenajia altu  
preziyo guzita,  
pobria eztiteke  
orrela bizita,  
bañan bai pensub'ori  
bajatu-azita.
  
9. Preziyua merke bada  
ganaru batena,  
pensu garestitikan  
nola eman jatena?  
Galtzeko tratabiriak  
ematen du pena,  
konsentimentu izango  
balitz norbaitena,  
au da basarritarrak  
desio dutena.
  
10. Basarrikua arkitzen da  
nekatu ta triste,  
eziñ egin duelako  
beretzat aimeste;  
danok berriz ortik biar  
erri ta erbeste,  
gezurrezko obra danik  
ori eztet uste,  
beragatikan gatoz  
borondate eske.

11. Arakiñak nai dun'eiten  
badu eskutikan,  
gure artian faltako  
ezta disputikan;  
almazenerua da  
berriz bestetikan,  
azienda ezin azi  
pensu garestitikan,  
gizon pobria libre da  
aberastetikan.
  
12. Pensubaren preziyua  
eztu nai eratxi,  
basarritarrak ezin berriz  
altura iritxi;  
merke eman baño naigo du  
almazena itxi,  
ala ganarubak eztu  
biar aña txitxi,  
bai illia azi-antza  
eta mami gutxi.
  
13. Au da pensu-zalien  
operaziyua:  
garesti salduzkeko  
due apiziyua,  
diruba enbolsatzeko  
artepiziyua;  
ezpazaie kejatzen  
diputaziyua,  
pobria txupatzeko  
ze opiziyua!

14. Arakiña tratura  
eztjua erua,  
presko erosteko ta  
saltzeko berua;  
bestiaren modukua  
almazenerua,  
berak nai dun prezিয়uan  
saldu jenerua,  
basarritar gaxuak  
au paraderua!
15. Gaubeko beatzik arte  
asi goizian da,  
lanian saiatzen da  
egun luzian da;  
basarritarrak daki  
nola bizi'an da,  
ta orain berriz bajatu  
zaku azienda,  
gutzaz aprobetxatzeko  
egongo zian da.
16. Despreziyu oni beira  
biyotza zat bete,  
arreglatu biar da  
ori nolabait e;  
Zeruko Aita Eternua,  
errukitu zaite,  
ezpadegu biar orren-  
beste borondate,  
esan diteke alkar  
eztegula maite.

BERTSO BERRIAK  
TXIRRITAK IJITUARI  
ATERATAKO SOÑUAN

Amar bertso auk, bi adiskidek emanak ditugu: Tolosa'ko Antonio Lakuntza zana eta Donostia'ko Aiete'ko Sebastian Salaberria.

Morroi batek, baserri batera joan eta pasa dituan istilluak adierazten dizkigu.

Moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper bat da. Baiñan seguru aski, letragatik-eta, Errenteri'ko Makazaga'renean inprentatua izango da.

Obe bearrez, iñoren lotsak berritzeko asmorik ez baitegu, izen guziak kendu egin ditugu.

Izenburuak, bertso auk zein doñutan kantatu bear diran esaten digu. Doñu ori *Auspoa*'ren 103-104'garrenean arkituko du irakurleak, 63 orri-aldean.



1. Bertso berriak jartzera nua  
guzizko borondatian,  
gauzak ez tira manifestatzen  
eskarmentatu artian.  
Morroi juanda bizituba naiz  
bereziziko nekian,  
ze tripako miñ pasa ditudan  
.....'n etxe batian.

2. Lendabiziko itzegin gendun  
soldata txikin bi illabete,  
gañeontzian ezin liteke  
triparikan ondo bete.  
Amabost egun poliki eta  
gero arrautzak aparte,  
juan banitzan e etxe ortara  
ederki penatu naute.

3. Bi morroi eta neskamia,  
illobak aldamenian,  
etxe guziya umez beteta,  
neroni bakarrik lanian.  
Biar bezela segitzen nuban  
modurik ederrenian,  
zaku iriña're majo ustuzuan  
San Antonio egunian.

4. Bi illabete pasatu ditud,  
irugarrena igualtsu:  
«Agindutako soldata ori  
noiz ordaindu bear dezu?»  
Ikusten degu elizara maiz ta  
lagun projimuai peatu.  
«Beste munduban gaizki zerade  
pagatzen ez badirazu.»

5. Bost illabete pasatu ditut  
.....'ko etxian,  
sasoi ederra nuban artian,  
eta gañera gayian.  
Merienda ta apari ederrak  
egiten giñun jayian,  
paraguero ta eskaliak e  
lo egiten zuten oyian.

6. Egun batian orren esana  
beñere etzait aztuko,  
muellia zeguan puskatuba ta  
bear bezela jazteko.  
Oriyek danak orla dirala  
eze asko etzan jateko,  
eran nai ezpanu esan ziraden  
belarretara juateko.

7. Bertsuak jarri bear bezela  
 kurioso ta suabe,  
 neri peatu ziraden baña  
 bai berari're dotore.  
 Egiyak garbi paperian  
 batere bildurrik gabe,  
 emango dute Santageda'ko  
 errian amistradore.
8. Kreditu ederrak, dudik eztana,  
 zabaldu dituzu zartzera,  
 ez nun pentsatzen orlako lanik  
 izango zanik aurrera.  
 Eskalientzat oiek obena,  
 morroiarentzat tertzera,  
 pobre jendeak maiteko zaitu  
 ola portatzen bazera.
9. Orlako gauzik ikusi gabe  
 iya berrogei urtian,  
 orlako gauzak zabaldu dira  
 taberna eta kafian.  
 Nerekin zer moduz portatu zeran  
 ..... etxian,  
 orlako lanik etzan izango  
 ondo pagatu bazian.

10. Guri tomate piskat emanda  
berak mokadu gozua,  
nai eztezula tribunalera  
iñaziko'izut pausua.  
Amargarren bertsuarekin  
isilltzen dezu .....,  
adios orain, ..... ta  
zuen .....

Bertso auk paperetik onera aldatzerakoan, moldiz-  
tegiaren utsegin batzuek zuzendu ditugu. Paperean one-  
la zegoan: Bertzo Banrrian jartzeranua; 2/1: Lendabi-  
cico Azeguín guendun; 3/6: mudirik ederrean; 3/7:  
saku oriñare majo ustuzuan; 7/4: bai berari dotore;  
8/5: Eskalientzan oyeik obena; 8/6: morroyarentzan  
tertzera; 8/7: pobre jendeak maitekoraitu; 9/3: orla-  
ko gausak zabaldira; 10/1: guri tomate piskat emande;  
10/2: berak mokadu gosuak.

(1936)

BERTSO BERRIYAK

..... ETXEARI JARRIYAK (1)

Amabi bertso auek, *Imp. Macazaga - Rente-  
ria* moldiztegian eman ziran argitara, eta Tolo-  
sa'n jaso genituan guk, bertako Isidora Moko-  
roa'ren eskutik.

Auzi baten berri ematen zaigu sail onetan:  
Bizkai'ko erri bateko baserri polit bat nori to-  
katzen zaion.

Olakoetan oi degunez, iñoren leengo lotsak  
berritu bearrez ez baigabiltz, izenak kendu eta  
utsuneak puntuz bete ditugu.

Gerra-urtean jarritako bertsoak dira. Beste  
zalaparta aundi ura asi zanean, txikiagoko au  
ederki aztuko zan.

Bizkai'ko gertaera izanagatik, bertsoak Gi-  
puzkoa'ko euskera dute. Probintzi onetako ber-

(1) Etxearen izena.

tsolari batengana etorriko ziran bertsoak jarri araztera.

1. Milla ta beratzi eun da  
oi ta amaseiko urtean,  
bertso berriak jartzera noa  
Euskalerriko partean;  
.....'tikan urruti gabe (2)  
baserri polit batean,  
zer pasatu dan esan bear det  
parientian artean.
2. Koñata ta gu bizi giñaden  
lenago baserri baten,  
motibo gabe asi zan ori  
nigatik gaizki esaten:  
gu gabiltzala berari gauzak  
ostutzen edo lapurtzen,  
gauz orrengatik egin genduen  
..... etxetik irten (3).
3. Uste det ori ez dagoala  
burutik ondo jantzia,  
begien bistan erakusten du  
berorrek esperentzia.  
Lapurrak gerala guri esanda  
nork artu pazientzia?  
Andre orrek bañan garbiagoa  
daukagu kontzientzia.

(2) Erriaren izena.

(3) Etxearen izena.

4. Bere aita eta gizonarekin  
..... etxean bizitu (4),  
guk andik irten genduenean  
oso zegoan kontentu;  
gizonari ta aitari gero  
Jainkoak zioten deitu,  
aiek iltzean eta bakarrik  
semetxoakin geatu.
5. Semea ere mundu onetan  
bizi zan urte gutxian,  
aren suertea ere izan zan  
oso estadu tristian;  
eriotzea nola izandu zan  
esan bear det itz bian:  
deskuido batez amak il zuan  
alper-arrien azpian.
6. Umildadean joan nitzan ni  
koñata orren aurrera,  
etxea nola tokatzen zaigun  
aditzera ematera;  
errespuesta eman ziraden  
lotsa gabian antzera:  
«Au nere aitak paga zuan da  
zuaz nai dezun tokira.»

(4) Etxearen izena.

7. Andikan laister geatu zan  
jueza enteratuta,  
baita gañera koñata ere  
paper txiki bat letuta;  
abadia ta abogadua  
defensarentzat artuta,  
dotore samar etorria zan  
burua ondo orraztuta.
8. Lendabiziko pleitua emen,  
bigarreanean Burgos'en,  
bide oietan pezeta batzuk  
gastatu egin ginduzen;  
umildadean ibilli balitz  
emakome ori zuzen,  
juezetara joan gabe gauzak  
arreglatuko ginduzen.
9. Egun batean don Balentin nik  
bidean nuan topatu,  
esan ziraden diferentzia  
bear dala erdibitu;  
sei milla duro ematekotan  
egin giñan arreglatu,  
esan gentzake bigarren aldiz  
degula etxea pagatu.



10. Jendeari nik emango diot  
egiakin aditzera,  
gezurrarekin ez nijoia ni  
projimorikan galtzera:  
alargun ori joan liteke  
oraindik esposatzera,  
merketariak izango ditu  
sei milla duron pozera.
11. Letra batzuek egin ditut nik  
pluma eskuan artuta,  
baita gañera arrazoiak ere  
ederki samar neurtuta;  
bertsoak jarrigaitik ez dezu  
kondutarikan galduta,  
gizon berria billauko dezu  
notiziak zabalduta.
12. Paper onetan amabi bertso  
egin ditugu paratu,  
baita gañera bear bezela  
pasadizoak kontatu;  
gusto duenak egin lezake  
irakurri ta kantatu,  
nai dezunean bueltak atera  
ez bazerade kontentu.

## BERTSO BERRIYAK

(OSO TEATRO POLITA)

Amabi bertso auek, *Imp. Macazaga*. - *Rentería* moldiztegian argitara emandako bertso-paper batetik ditugu. Paper ori, Makazaga'renean bertan eskuetaratu genduan.

Iru lagun egurretara beor batekin joan eta bueltakoan zer gertatu zan kontatzen digu sail onek.

Urterik etzaigu esaten. Baiñan paperak eta moldiztegiaren letrak ez dirudite oso zaarrak. Errepublikaren denborako bertsoak izango dira, eta bearbada gerraren ondorengoak.

Egillearen izenik ere ez da iñun ageri. Baiñan, oso oker ez bagaude, bertsolaria oiartzuarrak da: *zolo*, *eguntalako*, *jotetik*, *genazke*, *txistoka* eta abar esaten du, eta oiek Oiartzun'go izketa-moduak dira.

Bertso-paperak, *Bertso Berriak* beste izenbururik ez, eta bigarrenengo ori, gerok erantsia da, lenengo bertsoetik artuta.

1. Bertso berriyak jartzera nua,  
badet oinbeste kortesi,  
pasadizo bat esan biar det  
iñork nai badu ikasi;  
egun batian egurren billa  
geren bior eta guzi,  
bueltakan oso teatro  
polita degu ikusi.
  
2. Gure biorra aundiya da ta  
ni jarri nitzan gañian,  
pentsatu nuan: «Au juango dek  
beste txiki oi gañian» (1).  
Guk pentsatutzen ez genduela (2)  
loi-zolo aundi batian  
sartuta bertan gelditu zaigu  
bide guztiya betian.
  
3. Nolabait ere altxa genduan,  
abiya giñan etxera,  
andik aurrera neoni zutik  
gizon formalan antzera;  
aurrexigo berriz erori  
bueltaken goitikan bera,  
elkarri itz au esan geniyon (3):  
«Noraño juan ote da?»

(1) *Gañian* bi bider puntuan, poto beraz. Baiñan bigarrenkoa ez al da *beste txiki oik añian* izango?

(2) Bertso-paperak: *guk pentsatzen ez genduela*.

(3) Bertso-paperak: *elkarri itza au esan geniyon*.

4. Alegrantza bat eman diate  
kanta abekin doñuak (4),  
orduan etzan broma aundirik,  
tente genauzkan muñuak;  
goitikan bera eroritzeko  
arrek dauzkan enpeñuak,  
egur tartian atera ditu  
eguntalako soñuak.
  
5. Linterna artu lagunak eta  
abiyatu naiz atzetik,  
irristatu ta goitik beraño  
lendabiziko pausotik,  
Jaungoikorikan ikusten etzan  
alako tarte batetik,  
gaur pezta bat emango nuke  
arren ederki jotetik.
  
6. Ni ala joaten ikusi eta  
lagunak etziran mugitu,  
esan nioten: «Leku txarra dek,  
ortik poliki abitu.  
Martxa aundiya artu ezker  
ezin liteke gelditu,  
gau illunian paraje ortan  
korajiak biar ditu.»

(4) Bertso-paperak: *kanta abekin doñua*.

7. Beraxiago jua ta ura  
animaliyan postura,  
oso estraño antxe zegoan  
enbor zar baten modura;  
al zan bezela zuzendu gendun  
arri baten ingurura,  
esan genazke bigarren txandan  
jaiua dala mundura.

8. Ain leku txarra eta illuna  
ikusí genduenian,  
esan genduan: «Alfer-alferrík  
asíko gaituk lanian;  
orain baño aisago altxako degu  
eguna asten danian,  
bitarte bertan egongo gera  
trankilidade onian.»

9. Ondorenean beste gauza au  
esan geniyon elkarri:  
«Orretarako beste lagun bat  
biar genduke ekarri.»  
Bi lagun bertan gelditu giñan,  
bestia etxera etorri,  
postura artako gaurik ez diyot  
desiatutzen iñori (5).

(5) Bertso-paperak: *desiatzen iñori*.

10. Egiyak ondo esplikatzeko  
baneuzkan esperantzak,  
ango orduak eta minutuak  
ez dira izandu motzak;  
alde batetik txistoka zeuden  
gau-beliak eta ontzak,  
bestetik berriz, au okerrena,  
iya ill giñaden otzak.
11. Gure laguna ibilliya da  
esan duenez galduta,  
bide zuzena zuelakuan (6)  
okerrekuan sartuta;  
errez ez baña nolabait ere  
etxera allegatuta,  
goiz alderako jua zitzaigun  
beste mutill bat artuta.
12. Eguna asi zitzaigunian  
altxatu degu biorra,  
utsik etorri giñan etxera  
bertan utzirik egurra;  
gure orduko biajia ez da  
izandu oso laburra,  
bertso berriyen errematiak  
auxen du azken agurra.

(6) Bertso-paperak: *bide zuzenak zuelakuan.*

(1933)

## BASERRITARRAK ALKARTU

Sei bertso auek, *Argia* astekarian argitaratu ziran, 1932'eko Iraillaren 25'an. Firma ere badute: *Atxubiya*. Izengoitia izango da noski. Galdezka saiatu bagera ere, ez degu beraren argibiderik inñun atera: nor izan ote zan alegia.

Bertso auek, garai artan modan zebillen garbizalekeriaz kutsatuta daude. Zori onez, bertso-laririk geienak zentzuz jokatu zuten eta etzioten aize berriari on-iritzi. Ori zala-ta aien euskera mordollotzat jotzen zan. Gaur, berriz, garbienetako bat berak dutela, askok eta askok aitortuko luteke. Ez ordea bertsolariak leengo bidetik zearkatu diralako. Urteak erakusten dituzten komeriak!

Sail onek, baserritarren alkartu-premia garbi azaltzen du, eta orretarako dei bat egiten. Errepublikadenboran, lan asko egin zan asmo ori aurrera eramatearren. Euskal nekazarien bizikerearen agergarri izan nai duan liburu onek, orren berri ere eman bear zuan noski. Orregatik azal-

tzen ditugu bertso auek emen, oso itxurazkoak ez badira ere.

Ekiñaldi oietan, oso gogotik saiatu zan Andoain'go Merdillegi baserriko Jose Inazio Etxeberria bertsolaria zana. Bertso-sail batzuk ere argitara eman zituan *Argia*'n gai orretzaz. Baiñan aren bertsoak, danak batera argitaratuko ditugu.

1. Olerki batzuk abestutzeko  
gaur artu detan aldia,  
anai ta arrebai esango dizuet  
nik dakitadan pixkia;  
basarritarrak, entzun zazute  
gaur nik egindako deia,  
nik gaur eskatzen dizubetena  
guziok alkartutzia,  
basarritarrok izan dezagun  
gere gauzan jabetzia.
  
2. Basarritarrok lurperaturik  
egon gera orain artian,  
euskotarraren askatasuna  
ikusi degun artian.  
Basarritarrak lana eginda  
agintariak kalian,  
naiko zitalkeri egin digute  
oraindañoko artian,  
eta aurrera ein ez dezaten  
danok alkartu gaitian.



3. Basarritarroi areriyok  
agertzen zaizgu nunaitik,  
Udal-erri, Aldundi eta  
berdin Jaurleri aldetik;  
zerga edo kontribuzioa  
edozer gauz utsagatik,  
isunak berriz nunai eta noiznai  
edozer uskerigatik,  
amaika alper elikatzen da  
basarritarran lanagatik!
  
4. Basarritarrai dei maitekor bat  
eiten dizutet serio:  
maitetasun bat geure artian  
jartzia-arren propio.  
Basarritarra ez dala ezer  
kakanarru askok dio,  
biar bezela bere izakerai  
ondo beituko balio,  
basarritarra ausiko duan  
kaletarrik ez da jaio.
  
5. Ezer gaizkirik jarri ba'izutet,  
anai maitiak, asketsi,  
baña basarritar guztiok  
geure alderdiai eutsi;  
baña kaletar jauntxuen esku  
gure konturik ez utzi,  
aurretik labankeri asko ta  
atzetik lagundu gutxi,  
gure lanaren bitartez dabiltz  
ogeitatik emeretzi.

6. Izparringian abesten ai naiz  
baserritarren aldetik,  
bazkun eder bat jarri nai nuke  
gaurko onetan bertatik,  
beste guzien gain izateko  
eta indartziagatik,  
baserritarrak bere jabetza  
izandu dezan nunaitik.  
Agur guziori biotz-biotzez  
Atxubia'ren partetik.

*Atxubiya*

(1956)

## BASERRITARREN AZKEN URTIAK IPARRAGIRRE

Amabi bertso auek, moldiztegi-izenik gabe-ko paperetan atera eta zabaldu ziran. Noren es-  
kutik jaso genituan, ezin esango degu, apuntatu  
ez genduan egin eta.

Izenburuak, egillearen abizena esaten digu;  
izenik ez, ordea. Baiñan ori somatzea oso lan  
erreza izan degu.

Bertso auek, Errenderi-Oiartzun aldeko iz-  
kera dute. Alderdi orretan bi Iparragirre eza-  
gutzen ditugu, Añarbe'ko Patxi eta Xanti  
anaiak, biak bertsolariak. Patxi Oiartzun'go Al-  
tzibar'en bizi baita eta Xanti Eskoriatza'n, Pa-  
txirengana joan giñan.

Bertso auek Xantik jarriak zirala esan zigun,  
eta beste zenbait argibide ere jaso genizkion.

Xanti soldaduzka kunplitzen zegoan. Donos-  
tia'ko Ulia-mendi'ko arkaitzetara gabez eta itxa-

soz kontrabandoa sartzen zala-ta, soldadu-mor-doxka bat ekarri zuten, guardia-edo egitera. Xanti ere bai tartean. *Asistente* bezela egon zan, eta ortik lizentziatu zuten. Eta bertso auek antxe jarri zituan, Uliamendi'n.

Urte aietan, piñu asko ta asko sartu zan euskal mendietan. Mendi-baserrietan, berriz, kamiorik ez, esnea ateratzerik ez eta ardiak izaten zituzten. Ortik ornitzen ziran. Baiñan piñuak irabazbide ori erabat galdu. Multa izugarriak ematen omen zituzten, ardiak piñudietan arrapatuta.

Ori zala-ta, Oiartzun'go Balentin Otxoteko bertsolaria zanak bertsoak jarri zituan: *Auspoa* 115, 117 orri-aldean.

Mendi-baserriko semea izaki Xanti Iparra-girre ere, Añarbe'koa. Piñu beltza ezin, ba, begi onez ikusi, eta berak ere bertsoak jarri.

Seigarren bertsoan, piñuak «juan dan ne-guak igartu ditu» esaten du. Urte artako Otsaillean orma ikaragarriak egin baitzituan, eta piñudirik geienak otzak gorritu eta galdu egin ziran. Beste bertso-sail bat ere bada orretzaz: *Auspoa* 39, 29 orri-aldean.

Baserriaren etorkizuna oso illun ikusten du Xantik bertso auetan. Azken urteak dirala esaten digu. Berak bearbada etzuan orduan orrela pentsatuko. Baiñan bere jaiotetxeak ere azken urteak zituan. Añarbe baserri ori etzuten, ordea, piñuak galdu. Aren azkena nola izan zan eta zerk ekarri zuan, laixter ikusiko degu.

Azken bertsoak oar txiki bat egin bearra dauka. *Acróstico* bat da. Egillearen anai Patxik

esan artean, gu ez giñan oartu ere egin. Alegia, lerro bakoitzeko lenengo letra artu eta goitik beera irakurrita, egillearen izena degu: Santiago. Beraz, izenburuak abizena, eta izena ortxe izkutan.

1. Milla beatzireun berrogei ta  
amaseigarren urtian,  
bertso berriyak jartzera nua  
Gipuzkoa'ko partian;  
sentimentuak ipiñitzera  
nijua paper batian,  
ez dakitenak ikasi dezaten  
gu bizi geran artian.
2. Ez dan gauzikan esateagatik  
nere ustez ez naiz asi,  
iñori kalteik ein gabetanik  
nai nuke adierazi,  
gu menditarrak aspaldi ontan  
zer moduz geraden bizi;  
baserritarrak geien kastiguk  
nunbait genitun merezi.
3. Mendiko izaiera galduxe da ta  
kalian ezin biziya,  
lezakienak oraindik badu  
gomeni zaion guziya;  
gu langilliak eskerren orde  
burla deu irabaziya,  
kastigu onen mendin bizitutzeko  
artzagun pazientziya.

4. Askotan entzun izandu degu,  
gañera ikusten diranak:  
jan eran faltik ez dadukala  
naiko dirua duanak;  
bañan baserrin ez bada egiten  
kalian eskasiyan danak,  
au sinistatu lezake garbi  
konsideratzen duanak.
  
5. Garai bateko aitona zarrak  
gaur baleudeke bizirik,  
zer kontatu izango luteke  
lastima au ikusirik;  
baserritarrak dijuaz eskapo  
jaiotako etxiak utzirik,  
mendiko izaiera betiko  
galdutzen dala etsirik.
  
6. Len artaldia, orain piñua  
posible duan guziyak,  
obeto emateko esperantzakin  
ganbiyun daude asiyak;  
juan dan neguak igartu ditu,  
ala ere ez gaude etsiyak,  
ageriko da zer ekarko ditun  
asarre eta ezin biziya.

7. Baserrin egin da zenbait gauza on  
naiz eran eta naiz jateko,  
piñu ortatik olako frutik  
iñoiz ote da atêko?  
Mendiko azienda dana galdu du  
itz batian esateko,  
orra zer adelantuak dauden  
gauza merke izateko.
8. Begira zer ondoren dakarren  
arbol au aldatutziak,  
zeñi ez diyo pena emango  
gauza ola ondatutziak?  
Piñu tartian abandonatûk  
nun-nai basarri etxiak,  
parte bat dakar deretxuk eta  
errenta altxatutziak.
9. Ez du errezki amor emango  
zenbaiten afiziyuak,  
beregana nola errenditzen dun  
nor bere ofiziyuak;  
baña ain dira neurri gabiak  
eginta dauden aziyuak,  
libertadiak bajatu dira  
bañan ez kontribuziyuak.

10. Libertade gabe zenbat menditar  
gauden gaur errendituak,  
ez bizi bagiña garai batian  
bezin ondo unituak;  
amartatik bost baserritarrak  
gaude ontan metituak,  
orra zer lanak ekarri ditun  
alkar ezin sufrituak.

11. Neketan sortu, lanpian azi  
eta bizi sufritutzen,  
baserriyan bear duenari  
au etzaio faltatutzen;  
eta guri nondik arrapatuko  
beti daude pentsatutzen,  
aurrera obeto izaterikan  
nik ez det esperatutzen.

12. Sentitu dedan mudantzagatik  
adierazten naiz asi,  
nere ustetan ez naiz adi iñor  
tratatziagatik gaizki;  
ill nai ez eta ezin biziya  
ark naiko lanak daukazki,  
gure izaiera orra nola dan,  
orain nai duenak ikasi.



BERTSO BERRIAK  
AÑARBE BASERRIARI  
LAZARO IPARAGIRRE'K JARRIAK

Liburu ontako bertsoak argi ta garbi azaldu dutenez, baserria gainbeera joan da aspaldiko urteetan. Baiñan beste pauso berri bat ere eman du bide galgarri orretan. Obeki esateko, orretara beartu egin dute. Edozertarako lurra bear dala-ta, zenbait baserriren il-kanpaia bereala entzungo da.

Alegia, autopista edo kamio berriren bat idiki bear dala; fabrikaren bat altxa bear dala; erriren baten zabalketa dala; erreka-zuloren batean urak bildu eta kalera jetxi nai dirala; beti ere jendearen onerako lanak izango dira, baiñan ez dudarik izan: baserriren batzuk biziarekin pagatu bearko dute. Azken urte auetan ola-xe ari da gertatzen Euskalerrian.

Ezeren errurik gabe eriotz-pena artu duten baserri oien umeak pena izango dutela, esan bea-

rrik ez da. Eta beren naigabe ori bertsoan adierazi dutenak ere badira.

Adibidez, Patxi Lazkano bertsolaria, Donostia'ko *polígono* berri bat zala-ta, bera jaio ta bizi zan Otxoki baserria bota zutenean. Baiñan bertsolari orren bertsoak danak batera argitaratu-asmotan baigera, oraingoz gorde egingo ditugu bertso oiek.

Baiñan liburu au ongi osatu gabe geldituko litzake noski, olako bertsorik batere ez balu.

Utsune ori, Errenteria'ko baserri baten azkena adierazten duten bertso batzuk beteko digute. Baserri orren izena: Añarbe.

Añarbe'ko presaren aditzerarik ez duanik, iñor gutxi izango da gaur Gipuzkoa'n. Presa orrek asetzen baitu Donostia eta auzoko zenbait erriren egarria. Baiñan ez dira asko izango, Añarbe izen ori baserri batena zala dakitenak. Baserria orain atzenik; burni-ola garai batean.

Izugarrizko pareta zarrak omen ziran an oraintsu arte. Obra arrigarriak egiñak. Baiñan sustrairik apenas ateratzen dute, noiz asi ziran burni-lanean. Minerala, Jaizkibel atzetik ekartzen omen zuten.

Baserri ori Naparroa'ko eta Gipuzkoa'ko muga-mugan zegoan. Erreka muga, eta Añarbe ori erreka-bazterrean, Gipuzkoa'ko aiekatik. Baiñan andik lenengo erria, Goizueta.

Amairu laguneko fameli batek bete zuan azkeneko txandan baserri ori: aita ta ama, izeba zar bat eta amar senide: Mariano, Joxepa, Joxe, Patxi, Laxaro, Joxe Antonio, Xanti, Julita, Fer-

min eta Juan Mari. Patxi eta Xanti aitatu be-  
rriak ditugu. Xanti ori, aurreko saillaren egillea.  
Bederatzi senide bizi dira gaur. Irugarrena, Jo-  
xe, illa. Beren abizena, Iparragirre. Baserrian bi-  
zi izan zan azkena, Laxaro.

Aita, oso bertsozalea omen zuten. Senide oie-  
tako batek, Patxik, onela esan digu:

—Kanta zarrak kantatzen, nik nere denbo-  
ran ezagutu detan geiena. Aste betean kantatu-  
ko etzuan aiña bazuan arek memorian.

Eta esaera zarrak diona: nolako arbola, ala-  
ko ezpala. Semeak ere bertsozale purrukatuak.  
Eta lagunartean kantatzen dakitenak. Xanti,  
berriz, plazetan ere jardun izana.

Beren jaiotetxea urak estalia ikusi zutenean,  
biotzaren samiñak eraginda, iru anaik bertsojin-  
tzari ekin zioten eta sail bana jarri.

Laxarok eman zion asiera. Onako zortzi ber-  
tso aukeratu zituan. Eskuz idatzitako orri ba-  
tean zituan. Izenbururik gabe, ordea. Orain du-  
tena, guk erantsia da.

1. Bertso batzuek aierazteko  
artuko banu astiya,  
naita ere ezin esan nezake  
sentitzen detan guziya;  
enbaltse batek estali digu  
bein betirako iya-iya  
geu azi giñan babesa eta  
geu sortu giñan kabiya.

2. Irriyo batek mugatzen ditu  
Goizueta ta Errenteriya,  
biyen erdiyan or egin dute  
orma ikaragarriya;  
iñoiz balkoitik Naparrurafio  
tira izan det arriya,  
ortikan pentsa nun gelditzen dan  
Añarbe'ko baserriya.
  
3. Lengan juanta ura zegoen  
iya goraño iyua,  
ekusitzen zan ganbaratikan  
sartaldera dun leiua;  
izeba zanak andik ein oi zun  
jan-ordurako oiua,  
penetan nola ez da egongo  
barrunbe ortan jaiua?
  
4. Inguraturik egon nitzaion  
zelai aldeko kaskura,  
goiko ganbarâ iritxi bai-ez  
ta buelta danian ura;  
era txar artan ekusi eta  
ematen zuen tristura,  
bazirudien luzatu nairik  
ote zeguen eskua.

5. Gazte denborako gertakizuna  
zalla da azten adiñak,  
amaika jolas ta amets goxo  
barrunbe ortan egiñak;  
jantzi txuri oi orain betikan  
estali dizu urdiñak,  
zure antzeko iduri zaizkit  
aingeruen imajiñak.

6. Errenteri'ko Erriko Etxia  
genduen orko jabia,  
berrogei ta amar urtian ez da  
errentik jaso gabia;  
lenagokuen berri ez dakit,  
nik esan nai det guria;  
orain urari kobra zaiozu,  
bukatu dezu neria.

7. Eskabadora tresna zar orrek  
ebaki ditu esiyak,  
urratu ditu mendi ta errekek,  
basoak eta sasiyak;  
kendu dituzte orko intxaurrak,  
gaztain eta sagastiyak,  
eta atzenik ur-putzu batek  
estaltzen ditu guziyak.

8. Sentimentua edukitzia  
etzaitzela arritu,  
geiago ere esango nuke  
bañan zertako berritu?  
Auek paratu ditunak anai  
bertsozaleak baditu,  
neuk asiera eman det, orain  
nai badezute segitu.

IPARRAGIRRE'TAR PATXIK  
BERE JAIOTETXE AÑARBE'RI  
JARRITAKO BERTSOAK

Ikusi degunez, Laxaro Iparragirre'k anaiari dei bat egiñez bukatzen du bere sailla. Patxik bereala erantzun zion, onako amabi bertso auek jarraz.

*Goiz-argi* aldizkarian agertu ziran, 323 zenbakian, 1977'eko Ilbeltzaren 8'an, goiko izenburu orrekin berarekin. Orduan argitara atera eta guk jaso ta artxibatu. Eta orain, liburu au egiterakoan, berriz ere eskuetan artu.

Patxi Iparragirre aspaldiko adiskidea degu. Ain zuzen, Añarbe'tik urbil xamar, Berdabio'ko bidean, ezagutu genduan alkar. Orain Oiartzun'go Altzibar'en bizi da eta ara joan giñan arratsalde batez, bertso auek argitaratzeko baimena eskatzera.

Bereala eman zigun baietza. Baita beste bi mesede eder egin ere. Bata, anaien bertsoak gure eskuetan jartzea. Bestea, bere bertsoai buruz argibide jakingarri bat ematea.

Bere bertso oiek buruz kantatzen asi zitzai-gun, eta gu bereala oartu, etzituala itz guziak *Goiz-Argi'n* azaldu bezela esaten. Aldaketa oiek zer ziran galdetu genion orduan, eta berak olaxe jarri zituala erantzun zigun; esaten ari zan bezelaxe alegia. Bai guk sinistu ere: *Goiz-Argi'n* dauden bezela Errenteri eta Oiartzun'go izkerarekin ongi uztartzen ez diranak badira-ta.

Beraz, Patxi Ipafragirre'ren mendetik atera eta *Goiz-Argi'n* azaldu baiño leen, bide ortan alegia, eskuren bat ibilli zan bertso auek *orrazten*. Ezer askorik etzuan ikutu edo aldatu, baiñan guk, noski, Patxik esan bezelaxe argitaratzen ditugu emen.

1. Milla beatzireun irurogei ta  
amaseigarren urtean,  
gaur Maiatzaren lenengo egunez  
Errenteri'ko partean,  
bertso batzuek jartzera noa  
ni nere borondatean,  
oroipengarri izan ditezen  
bizi geraden artean.



2. Promesatxo bat nedukan eta  
gaur ekin diot lanari,  
lendabiziko laguntza eskatuz  
zeruetako Jaunari.  
Nik nere ustez badadukat gaur  
bai borondate ugari,  
bertso batzuek jartzeagatik  
nere jaiotetxeari.
  
3. Zure aurrean arkitutzen naiz  
emen eskertu bearrez,  
bear bezela itzegitea  
naiz ez dadukaten errez.  
Ondaturikan ikusten zaitut  
nik zu orain zoritxarrez,  
kantari nator mingañez baña  
biotza daukat negarrez.
  
4. Usteko zendun zugan etzala  
orain oroitutzen iñor,  
bañan berriro zurekin nazu  
nola baidizuten nik zor.  
Zure aurrean itzezin nai det  
umiltasunean jator,  
biotzez maite zaitun seme bat  
zu eskertutzera dator.

5. Zuri begira arkitutzen naiz  
esan bearrez egia,  
zuk dadukazun egoera au  
ain da lastimagarria.  
Zure barrendik ikusi nuan  
lendabiziko argia,  
nola ez det nik maite izango  
neu sortu nintzan tokia?

6. Amar senide izan giñan gu  
emen jaio ta aziak,  
aita t'amaren aginduetan  
bear bezela eziak.  
Gure artetik bat palta degu,  
beatzi gera biziak,  
gañerakuak sano gerade  
Jaungoikoari graziak.

7. Aita ta ama, amar senide  
eta izeba zarrena,  
sukalde ortan alkartutzen zan  
gure familia dena.  
Gaur modu ontan ikusi eta  
nork ez du artuko pena?  
Urperatutzen ikusten degu  
gure txokorik maitena.

8. Oi, baserritxo, ikusten zaitut  
urez estaltzen asita,  
zorieko izan liteke  
egin dizudan bisita.  
Guk zugandikan aldegin degu  
bakardadean utzita,  
Jaun Zerukoa, lagun zaiozu  
goiko zerutik jetxita.
9. Galdu dirade gure soroak,  
galdu dira sagastiak,  
bear bezela emen ipintzen  
etzeuden gutxi kostiak.  
Lenago alai zeuden tokiak  
arkitzen dira tristiak,  
zeñi ez dio pena emango  
modu ontan ikustiak?
10. Bizi naizela etzait aztuko  
eman diguzun babesa,  
zor dizuguna zuri ordaintzen  
ez degu gauza erreza.  
Zori txarrean egin dute zu  
urez estaltzeko presa,  
bañan alare urte askoan  
zutikan iraun beza.

11. Zuk gaur daukazun egoera au  
nola ez det nik sentiko?  
Gu alkarrekin berriz izaten  
ez gerade iritxiko.

Bañan alare nik aztutzera  
iñoiz ez zaitut utziko,  
urperatuta gelditu arren  
zere denbora guziko.

12. Zure aurretik nola joango naiz  
benetan agurtu gabe,  
zuri begira pasatu arren  
emen zenbait atsekabe?

Emen naukazu begietatik  
malkorik atertu gabe,  
biotzetikan agurtzen zaitut,  
maite zaitudan AÑARBE!

## URPEAN ITO ZERAN AÑARBE, BIOTZEZ AGURTZEN DET NIK.

Esan bezela, bere anai Xantiren bertso auek Patxi Iparragirre adiskideak eman zizkigun. Multikopistaz idatzita daude, azken bertsoaren bukaera izenburutzat daukatela. Paperaren barrenean, egillearen izen-abizenak eta eguna irakurtzen dira: *Xanti Iparragirre'k, 1976'eko abuztuan.*

Sail au zergatik eta nola jarri zan, esanik daukagu. Ona, beraz, besterik gabe bertsoak:

1. Errenteri'ko mendi batean,  
Naparrua'ren mugarri,  
Añarbe deritzan basarria,  
nork ez daki zure berri?  
Basamortuan egin zinduten  
basatien goxogarri,  
zartzarorako etzaizu zuri  
azken ederra etorri.

2. Naigabearen arantzak neri  
zabal erazi begia,  
batzuek lasai, besteak estu,  
au betiko komeria;  
egarri asko aseko ditun  
Añarbe'ko ur geldia,  
orke urakin ezta aseko  
nik daukadan egarria.

3. Arrantzalien ostatu ziñan  
lenengotikan gaur arte,  
naiz etxeko ta naiz kanpokoak  
zure bear izan dute;  
otzak zegonai beroa eta  
goseak zegonai jate,  
arrantzaleak aldegin eta  
zu amorraiakin bete.

4. Gaztearoko oroitzapenak  
nau onuntza ekarria,  
ikusi nairik ni jaio nintzan  
txokoa ta baserria;  
zu era ortan ikusitzian  
neure barruko larria,  
eman dizuten azken tristea  
ez al da negargarria?

5. Gure guraso agurgarriak  
kabitzat artu zinduten,  
gu bagiñaden amar senide,  
or azi giñan nunbaiten;  
zure babesa izan gendunak  
gabiltz zuri itz egiten,  
dizugun zorra ordaintzekotan  
asi gindezke noizpaiten.

6. Ori azkena izan dezuna  
ainbeste seme azita,  
bakoitzak bere bideak artu,  
danok an ezin bizi-ta;  
txorien eran zabaldu giñan  
kabia bertan utzita,  
bizi naizela etzait aztuko  
egin dizudan bisita.

7. Arranbide'ko mendi-arte  
orma batez itxi dute,  
andik gorako zulo guztiak  
danak urarekin bete;  
gu jaio giñan basarri xarra  
ere or zegon nunbaite,  
bere babesa eskeñi zion  
txokoa nork eztu maite?

8. Inguratuta begira jarri,  
alare ezin sinistu,  
ainbat urtean bertan bizia  
antz eman eziñik estu.  
Esaten nuen: «Inguru onek  
lengo itxurarik eztu.»  
Añarbe xarran tximini-punta  
ikusten zan justu-justu.
9. Inguru danak lur-gorrituak,  
bide zabalak nunaitik,  
gure sagasti eta intxaurrak  
astindu dituzte ortik;  
baztar guztiak jo ta txikitu,  
basarri xarra or zutik,  
oraindik ere arnasa artzen  
tximiniaren puntatik.
10. Gauz asko bururatu zitzaidan  
basarri xarrai begira,  
neure jatorri ta izateak  
zure barrukoak dira;  
orma txuri ta tellatu gorri,  
orri berdez bere jira,  
urpe ortan zer estali duten  
konturatu ote dira?



11. Zure barruan jaio nintzan da  
zure babesean azi,  
zure barruko eskola daukat,  
besterik ez nun ikasi;  
ixiltasunez bakar-bakarrik  
pakea zendun nagusi,  
gaur urperatu zaituzte baiñan  
etzendun ori merezi.

12. Baso-mutil da mendizaleak  
zu gabe etzuten onik,  
artzaien eta arrantzalien  
babes goxoa izanik;  
estraperlistak eta makiak  
or ez dute zer egiñik,  
urpean ito zeran Añarbe  
biotzez agurtzen det nik.

## BASERRITARRAK GERA GU

Izenburu ori zergatik ezarri ote diogun atal oni? Kanta ezagun ori aurretik datorrelako. Baiñan beste bertso-rik ere bada atzetik.

Orain artean, sail osoak agertu ditugu, bertso-papera-edo eskuetaratu eta andik kopiatuta.

Baiñan ez da beti suerte ori izaten. Beste batzutan, bertso-pare bat edo bertso bakarra jaso degu. Oiek ere liburu ontara ekarri bear zirela, dudarik ez da.

Alde batetik, beste sail batzuren puskak edo kondarrak izanik, garai bateko aberastasunaren testigu edo lekuko ditugu. Bestetik, berriz, galte orren errua euskaldunok beste iñork ez baitaukagu, gure zabarkeriaren salatzalle dira.

Ala ere, sail oien aztarrenik bada. Alegia, txoriak iges egin baiñan luma batzuk jaulkita. Okerragoa dana, ezereen arrastorik utzi gabe betiko joandako saillik ere izango da noski. Bat baiño geiago gaiñera.

\* \* \*

*Baserritarrak gera gu* baiño kanta ezagunagorik, oso gutxi izango da Euskalerrian. Ala ere, egillea nor dan, noiz jarria dan, sail onek zenbat bertso zituan eta abar, ez degu uste iñork ere garbi dakianik.

Errenteria'ko Makazaga'k atera zuan *Euskal-Erriko kanta* zarrak liburuxkak, bi bertso auek ditu:

Baserritarrak gera gu  
ezin gentzake ukatu,  
baña kaletarrak bezin ongi  
soñua jotzen degu.

Kalian dira bi gauza  
neri gustatzen zaidanak:  
ardotxo txuri goxua eta  
opill koskor biguña.

Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman, berriz, iru bertso daude. Lenengoa berdin. Bigarrena naiko aldatua, eta irugarrena berria:

Kalian daude bi gauza  
neri gustatzen zaiztanak:  
ardo zuri goxua eta  
ogi zuri biguña.

Ez gabilta gu oiekin  
ez kaletarren modakin;  
eunezko praka txuriyak eta  
euskerazko praketak.

Bertso auetan ageri danez, garai artako baserritarrak etzeuden beren burua ukatu eta kaletar itxura artzeko asmotan. Gauza bera erakutsiko digu, emakumezko batek kantatutako bertso onek:

Baserritarra izanagaitik  
ez neri egin burlarik,  
nere gonatxu perkalezkuak  
ez dauka meriñakerik.

Bertso ori, *Euskal-Erria* aldizkarian arkitu genduan, XIX zenbakian, 1888 urteko alean alegia, idazlan ontan: *Isidoro Ruiz de Arbulo: Las fiestas euskaras, Tavira de Durango, setiembre de 1888.*

Aurretik oar jakingarri au egiten du:

«...aquella poesía popular que hizo época cuando hace bastantes años, por todas partes y a todas horas se oía en nuestros pueblos, valles, montes y heredades.»

Oso bertso zaarra da, beraz.

Urrena, Durango'ko zidargiñak aitatu ondoren, aundi xamarrak esaten ditu:

«Y tantos otros que es ocioso mencionar en este lugar. Pues bien: es preciso cultivar este género, y ya que la gente del pueblo escucha embobada las coplas de ciego, y se detiene y olvida sus tareas cuando resuena la voz de algún infeliz bersolari, que, por regla general, destroza el idioma y su laringe con narraciones de estu-

*pendos sucesos, que no han sucedido más que en el averiado magín de algún desdichado vate...»*

\* \* \*

Bi bertso auek, Amasa'ko Karmen Mendiluze'ri jasoak, Azkue'ren *Cancionero Popular Vasco'n* agertu ziran, 612 zenbakiarekin. Doña, toki berean arkituko du irakurleak.

Asentsio ta Gorputz  
eta San Juanak,  
elkarren antzekoak  
otaba ta danak  
Oi nekazariari  
para dizten lanak!  
Zer pentsatzen ote du  
Jesus gure Jaunak?  
Noizbait konbertitu du  
Semea bere Amak.

San Juan asi zaigu  
kolera onean,  
orrek beti segitzen du  
asten dan lanean,  
beti tulubioak  
zazpi egunean.  
Gero Aita San Pedro  
etorri danean,  
islak txukatu ditu  
biaramonean.

\* \* \*

Sei bertso edo kopla auek, Gernika'ko Julio Bareño jauna zanak bialdu zizkigun, 1959'eko Garagarrillaren 26'an, aurretik oar au erantsiz:

«Alejandra Zubizarreta'k abestuten dauz. Euren artian bi neurriko bertsoen batzuk dira, baña nik berak diñoan lez jarri dodaz.»

Alejandra Zubizarreta ori, Bizkai'ko Amoro'to'n jaioa zan, eta larogei ta bederatzi urte zitan 1959 urtean.

1. Ilbeltzan erdiraño  
artue bagendu,  
nekezale geienak  
giñake kontentu.
2. Ilbeltzan erditikan  
San Juan'era  
billatu biarko da  
boltsan dagoana.
3. Azokara joateko,  
artoa erosteko,  
gosia ilteko,  
urte txarrak dijuaz  
txanpona biltzeko.

4. Artuek biarko deu  
guretzat indarra,  
garirik eztago-ta  
badogu biarra.
  
5. Izaten diran puskak  
nagosiarentzat,  
orrelango fortunak  
oi dira guretzat.
  
6. Atso eskeliek  
agure pobriek  
ez ditu obiek  
baña ezin emon guk  
gure laboriek.

\* \* \*

Onako bertso au ere, Gernika'ko Julio Ba-  
reño jauna zanarengandik jaso degu; 1959'eko  
Ilbeltzaren 20'an bialdu zigun. Baiñan oraingo  
ontan aztu-edo egin zitzaion noren aotik jaso  
zuan esatea.

Ni nazala diñue  
erdi zorue,  
iñoren solotik neurera  
daroadalako artue.  
Neuretik iñorenera  
eroango baneuke,  
erdie bearrian  
osua nintzake.

\* \* \*

Karobia erretzea, oso bearrezko lana zuan garai batean nekazariak. Gai onetzaz, iru bertso auek jaso genituan Lasao'n, 1957'eko Abuztuaren 23'an. Lasao'ko Olaberri baserriko Jose Lizaso'k jarriak omen dira.

Kâbi aldên gertatu da  
makiña bat kaso,  
zer erre diran esaten  
bear diot eraso:  
zazpi txapel, amar pezta,  
geiô igual akaso,  
fianbrera, pañuelo,  
zaku ta kanpazo.



Ala ere itxuraz  
guk erre kâbia,  
egurra kiskalduta  
în gendun karia.  
Luis Itzira'k esan zun:  
«Bota ta pakia  
Elkota'n kazadora ta  
Jose Marin jakia.»

Beste gizon bat ere  
bazan aldamenên,  
ura ere txapela  
botako zukenên;  
orrenbeste urte ta  
orrelako lanên,  
neuk esan nion: «Olakoik  
etzazu ein emen,  
*per omnia saecula*  
*saeculorum amen.*»

\* \* \*

Iru bertso auek, Azpeitia'ko Jose Antonio Garmendia Agirrezabalaga'ri jasoak dira. Berak bere ama zanari ikasiak omen zituan:

Nere bizi-modua  
dijua egoki,  
naiko lo egin eta  
zazpiretan jeki;  
eguna pasatzen det  
lanian ederki,  
illuntzero joaten naiz  
tabernara beti.

Abarka ta narru zar,  
orrenbeste tratu,  
batzuak pagatu ez  
bestiak ukatu;  
familia azita  
dirua sobratu,  
bien bitarte ontan  
Jainkoa serbitu.

Zokorrera joan da  
or esnia saldu,  
notizia polita  
didazu bialdu.  
Dirurik egin ez ta  
animia galdu,  
emen olakorikan  
iñork egin al du?  
Ezorra berotzia  
merezi ez al du?

\* \* \*

Bi bertso auek, Eibar'ko Juan San Martin  
adiskideak bialdu zizkigun, 1959'eko udaran:

Ai, Peru, Peru, Peru!  
I beti alperra,  
sarri izango dok ik  
alkondara zarra.  
Alkondara agiri da  
prakaren zulotik,  
eta txapel txatala  
belarri ondotik.

Basarriko mutillen  
konsolagarria:  
kolkuan arto-zati  
ikaragarria.  
Ez balitu naikua  
esaiok amari  
ipiñi daiozala  
baba-lapiko bi.

## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. A. M.<sup>a</sup> Zabala: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. A. M.<sup>a</sup> Labayen: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. F. Imaz: Bertso guziak. (*Aitua*).

25. A. P. *Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. A. M.<sup>a</sup> *Zabala*, A. *Larraitz*, *Mir*: Periyaren zalapartak. (*Aitua*).
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. B. A. *Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. T. *Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).
30. G. *Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. M. *Soroa*: Baratzan. (*Aitua*).
32. M. *Elicegui*, A. *Zavala*: Pello Errotaren bizi-tza. (*Aitua*).
33. M. *Elizegui*, A. *Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak. (*Aitua*).
34. P. *Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. J. V. de *Echagaray*: Festara.
37. A. *Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. S. *Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. J. R. *Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa*. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. P. *Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. J. M. *Satrústegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. P. M. *Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. P. *Barrutia*, Sor *Luisa*, X. *Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. A. *Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. P. M. *Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. G. *Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. A. *Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. A. *Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. C. *Beobide*: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. A. *Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. A. *Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. A. *Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. A. *Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. A. *Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. J. M. *Satrústegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. A. *Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa* (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. A. *Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. A. *Iturriaga*: Ipuiak.
73. A. *Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).


- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*.)
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*.)
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*.)
84. *M. Matxain*: Uste gabea.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*.)
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*.)
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*.)
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*.)
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*.)
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*.)
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*.)
105. *José Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*.)
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*.)
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*.)
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-aria, 1972. (*Aitua*.)
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*.)
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*.)
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*.)
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: ZapiRAIN anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.

129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J. M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.




1009686  
B0-3007





BO-



AUSPOA  
LIBURUTEGIA